

uk

75. zenbakia / 2004 otsailak 20





I. kapital handitzean
4.595.900 €
 lortu genituen
 Ezarritako helburuaren **% 92**

**EUSKARAZKO KOMUNIKABIDE BERRIAK
 SORTU ETA SUSTATZEKO**



HITZA & ESKUALDEETAN



berria.info



MATRAKA



matraka.info



berria.info/english



urolakostakohitza.info
 oarsoaldekohitza.info
 tolosaldekohitza.info

400.000 € behar ditugu

INFORMAZIOA:

943 30 43 45 www.ektsa.net akziodunak@ektsa.net

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Inauteriak. Asier Mentxaka.
- 6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Hauteskundeak, Christian Reinicke.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako Portu Zaharra, 1890-2005.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 9. ERRETRATUA. Juanjo Bidea, DYako ordezkaria Getxon. A. M.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Agate Deuna, Asier Mentxaka.
- 26. ERREPORTAJEA. Algortako merkatu txikia, Unai Brea.
- 28. ARGAZKIA. Areetako arrain-saltzailea, Jon Bernardez.
- 30. BERBETAN. Konrado Mugertza, U. B.
- 34. FOTOGRAFIA. Skaterrak, Carlos Terrerros.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Oskar Fernandez-en zutabea. Pantaila berria Leioan.
- 43. MUSIKA. Ekin taldearen lehenengo diskoa. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Literatur aldizkariak bat egin dute.
- 45. KIROLA. Bizkerre emakumezkoen futbol taldea.

EUSKARAZ

- 46. ELKARRIZKETA. Igor Elortza. Unai Brea.
- 47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan? Adibidez, Erromoko Elizalde tabernan.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Bizkerre futbol taldea, 1985. Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Carlos Sobera. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Carlos Terrerros



30 Konrado Mugertza



46 Igor Elortza

Berbetan

Aspaldidanik getxoztartutako eibartarra. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzan Hezkuntza Berriztatze Zuzendaria da.



34 Skaterrak



24 Agate Deuna



54 Carlos Sobera



19 Maria Victoria Resano

Bihotz Handi Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak / ordutegia: 16:30 / 21:00

- Algortako San Nikolas plaza.....**martxoak 14**
- Redentor elizako parkinean.....**otsailak 22**
- Algortako anbulatorioa.....**otsailak 21**
- Areetako anbulatorioa.....**martxoak 15**
- Erromoko kultur etxea.....**otsailak 24**

Informazioa: 900 720 389 Etorri odola ematera, ez itxaron!



Alangoeta 8 (Eskol Herrerri hainaren huts)
 Tfno.: 94 491 23 79
 Algortza

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Ariaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETAK: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenetxea, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1678-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz koptatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkartearen Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du**
Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du**

**Leioako Udala**
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**
Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Bizkaiko Foru Aldundia**
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**Fundación Grupo Eroski**
Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

UK
Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntzak
BBK 2095 0121 10 91 02483676
Boluntzarreta

gugeu

Aniztasuna

Hauxe duzu, irakurle, 2005eko bigarren UK. Ale hau zure eskuetara heltzen denerako, azken boladan denon ahotan ibili den Europako Konstituzioaren gaineko erreferenduma eginda egongo da, eta beraz, lerrook ez dute zure botoa alde batera edo bestera bideratzeko inongo eraginik izango. Ezta nahi ere!

Aitortu behar dugu etxeko postontzietan aurkitu genuen testu hori gainetik baino ez dugula irakurri. Hori bai, arreta bereziz irakurri ditugu hizkuntz eskubidei dagozkion atalak. Eta gabeziak nabarmenak direla begibistakoa da. Esaterako, Konstituzio hizkuntzak 21 direla esaten da, jakina, euskara ez dago horien artean. Beraz, Europaren aberastasun handia den hizkuntz aniztasuna mugatzen da. Gainera, euskal herritarroei ez zaigu gure hizkuntza erabiltzeko duintasuna ere aitortzen. Europako beste hizkuntza-komunitateen eskubide berdinak edukitzea ez zaigu asko eskatzea denik iruditzen.

Europarentzat, antza, beharrezkoa da konstituzio bat, hori ez du inork zalantzan jartzen, baina Europako hizkuntzarik zaharrenari status ofizialik onartzen ez dion testu bat, nekez izan daiteke ona euskal hiztunontzat, ezta Konstituzio horrek jasotzen ez dituen Europa osoko beste hizkuntza-komunitateentzat. 4

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero erosi > **berria**



[irudia]

ERANDIO, 2005-02-8

Inauteri nekagarriak / “Amatxuuuu! goazen etxera! Ez dakit zer gertatu den baina amatxu zoratu egin da. Hiru egun daroaz ni arropa arraroagaz janzen... gainera jendea hurbiltzen zait, tonto aurpegia ipini, irribarre egin eta masailetik tiraka hasten zait... Mundu guztia zoratu al da? Ia hau guztia laster amaitzen den! Berriro guapo jantzi gura dut. Ai ama!” | Argazkia: **Asier Mentxaka**

Leihatila

> Maddi Albizu

Itxaropena kartoizko kutxetan

Otsailaren 13an abiatu da Euskal Herritik Saharako Karabana. Gogora ekarri dezagun 1975ean Madrilgo Gobernuak Mendebaldeko Sahararen gaineko kontrola Marokori eta Mauritaniari eman eta, urte horretako urrian bertan, bai Marokok bai Mauritaniak inbasio militarri ekin ziotela ("Martxa Berdea" entzuten-sua). Saharako herritarrek ihesari eman zioten eta, besteak beste, Aljeriako Tinduf basamortuan erre-fuxiatu ziren. Orduz geroztik Saharako herritarrak herbestetik ari dira lanean haien herriaren bizi-raupenaren alde. Karabana laguntza txiki bat besterik ez da (aurten atuna, konpresak eta azukrea bildu dira).

Karabanarako trailerrak betetzen ikustean norberari barrunbea irauli egiten zaio. Itxaropena kartoizko kutxetan ere bildu daitezkeen ikasi dut egunotan. 4

IRITZIA

Hauteskundeek gainean gogoeta eskatu diogu Christian Reinickeri. Bera legez kanpo utzi zuten Getxo Bizia plataformako kidea da.

Hauteskundeak?!

Maiatzan urte bi izango dira aurreko udal eta foru hauteskundeak izan zirenetik. Uribe Kostako herri plataformak gehien gehienei eta AuBri parte-hartze legala ukatu egin zitzaizkien. Hala ere, debekuari, jazarpenari eta ustezko baliogabetasunari aurre eginez milaka herritarrek galarazitako aukeraren alde egin zuten. Desobedientzia zibila eta erabakitasuna.

Pertsona bat, boz bat. Zenbaketa eta gero, nola da posible demokraziaren oinarritzko araua ez errespetatzea? Zertan ari ziren zerrenda guzti guztiek jasotako babes eta bakoitzari dagokion ordezkaritza zenbakitan argi eta garbi adierazten ez zuten komunikabideak? Apartheid politikoa.

Herriaren borondateari muzin eginez hainbat hautagaik berari ez zegokion zinegotzi postua onartu eta hartu egin zuen. Erandion eta Leioan PPkoak, Plentzian eta Lemoizen EAJkoak, Getxon Ezker Batukoak. Legea faxistek ezarri zuten, baina honen ondorioz lortutako zinegotzi postuak eta gabonetako otzarak denek onartu dituzte

gustura. Iruzurra eta lotsagabekeria.

Bitartean apartheidak bere bidea egin du. Osoko bilkura eta udal batzordetan ez dugu ez hitzik, ez bozik; baina herri plataformak herrigintzan eta udalgintzan ari gara lanean eta ustez bazterketa honen aurka daudenek badakite hauteskunde legearen artikulua zehatz bat baliatuz, posible eta legala dela (da) bozen zilegitasuna duenari dagokion zinegotzi edo batzarkide postua onartzea eta ematea.

2004an Espainiakoak eta Europako Parlamenturakoak eta orain Europako Komunitateko estatuen arteko itun berriari buruzko erreferendumaren ondoren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako autonomia erkidegoko hauteskundeak ditugu ate joka.

«Guztien parte-hartzea bermatuta egon arte hobe luke Ibarretxek hauteskundeak ez deitzea»

Aurrekoetatik lau urteko epea gordez maiatza edo ekainerako izan zitezkeen, baina Ibarretxe presaka dabil. Hauteskundeetan denek parte hartu behar dutela esaten duenean, Batasunak ere parte hartu behar duela amesten duela aitortzen digunean gizon zintzo eta pertsona onaren aurpegia jartzen du, eta ondoren hauteskunde autonomikoak apirilaren 17rako iragarri ditu.

Denok dakigu faxisten garaian ezarri egin zela ezker abertzalea joko kanpo utzi eta desgiteko helburua zuen partiduen legea. Denok dakigu egoera zuzentzeko ardura nagusia PSOE eta Zapaterok dutela, baina nork berari dagokion ardura bere gain hartu behar du. Guztien parte hartzea bermatuta egon arte hobe luke Ibarretxek hauteskundeak ez deitzea. 4


Christian Reinicke
Getxo Bizia herri plataformako kidea

[lehen]



EUSKAL ARKEOLOGIA, ETNOGRAFIYA ETA KONDAPIA MUSEOA

[orain]



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / PORTU ZAHARRA (1890-2005)

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > behera etorri da udaletxea



Irudiak eta manipulazioa: A. M.

[talaita]



Villamonteko kultur etxean batu ziren otsailaren 4an

ekimena > emakumeen mundu martxa

Martxoaren 8an hasiko da Brasilen Emakumeen Mundu Martxa, eta Euskal Herrira maiatza aldera helduko da. Martxaren berri emateko, ekintzak antolatzeke, laguntzaileak bilatzeko...deia egin eta batez ere Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxarako Plataformak prestatu gura dituen jarduerak eta egitekoak azaldu zituen emakume getxoxtar talde batek. Uribe Kosta mailan plataforma bat osatzeko asmoa ere badauka, baina hori gauzatuko den zalantza ere bai. 2000an egin zen I. Emakumeen Mundu Martxa eta bere helburua emakumeek jasaten duen pobrezia eta indarkeria salatzea izan zen. Oraingoan, II. martxan, aldarrikapenetatik proposamenetara pasatu gura dute. m

kale izendegia > Algortako Maria Goiri



Urte bi igaro dira UKko ataltxo hau abian ipini genuenetik, eta dagoeneko 38 pertsonaiaren inguruan idatzi egin dugu. Bat kenduta (Maria Kristina erregina), gizonetakoak besterik ez dira agertu bertan; izan ere, eskualdean ia ez daukagu emakume izenik daukan kalerik (santak alde batera utzita). Bada, oraingoan eta bigarren aldiz, kale izendegi honen protagonista emakumezkoa dugu: Maria Goiri. Kalea Algortan dago, *Trinitarioen* elizatik oso hurbil. 1874ko urriaren 1ean jaio zen Algortan bertan Maria Goiri, baina bost urte zeuzkala bere ama Ameliak Madrilera eroan zuen. Unibertsitatera joan ahal izateko, Sustapen Ministroak esku hartu behar izan zuen. Ateneoko ikasle zela, Ramon Menendez Pidal filologoa eta historialaria ezagutu zuen, eta beragaz ezkondu zen 1900. urtean. Filosofian eta Letretan Doktore, Maria Goirik bizitza osoa eman zuen Espainiako erromantzeroko ikasten. Madril hil zen 1954an. m

Ezkerrean, Maria Goiri kalea

agurra > kurkudi

Bere azken orria idatzi du Kurkudi liburudendak. Urte askoan Zabala kaleko (Algorta) erdialdiko denda euskal irakurleen helmuga izan da, batez ere, euskal idazleen azken lanen berehalako erakuslehoia. Horrez gain, gaztelaniazko eta nazioarteko egileen liburuez ere beteta zeuden Kurkudiko apalak. Baina irakurzaletasuna ez da sano bizi gure artean, eta Iñaki Ondarruak ezin izan du sendagai gehiago eskaintzen jarraitu. Kanta apur bat aldatuz gero, horra egia borobil bat: *"Euskadin literaturak ez du dirurik ematen... ezer ez da berdin!"* Agur! Sendatuko garen egun handira arte. m

Ia bi hilabete dira Kurkudik atek itxi zituela



[erretratua]



Areetako Negubide kaleko 5. zenbakian dago Getxoko DYaren egoitza (Uribe Kosta osoa hartzen du) eta hantxe dauka Juanjo Bideak bulegoa; argazkiak, orroigarriak eta esker oneko izkribuak nongura. 1994an "Voluntario del Año" izeneko aipamena jaso zuen. Eta horietan premian dabil elkartea: boluntarioak.

Juanjo Bidea > DYaren ordezkaria Getxon

Makina bat pasadizo kontatu zizkigun, memoria bikaina daukalaren froga da: *"DYAn hasi nintzenetik izan ditudan bizipen guztiak idatziko banitu, liburu mardula aterako litzateke"*. Juan Jose Bidea Expositok (Leioa, 1933) oraindik gogoratzen du Bide Laguntza elkartean boluntario sartu zen data zehatza: 1971ko irailaren 14a. Hamazortzi urteren buruan, Getxoko "Gelditu Eta Lagundu" (DYaren siglak euskaraz) sortu zuen. *"Semea, medikuntzako hiru ikasle eta ambulanzia zahar bategaz hasi ginen"*; harrezkerotzik, Getxoko egoitzaren arduradun nagusia dugu, eta hamaika istorioren lekuko izan da: *"Hemendik ezkontza batzuk atera dira, eta pare bat dibortzio ere galarazi ditut. Sorbalda honen gainean zenbait boluntariok malkoak isuri ditu"*. Juanjori tropelaren azken postuan egotea gustatzen ei zaio eta, jakina, besteen alde ezerezen truke behar egitea ere. Horrek asetzen du Areetan bizi den merkatari ohi hau: *"Jendeak aintzat hartzen du zu egiten zabilzana, hori da politena"*. Hala ere, ez da sekula konforme gelditzen elkartea egiten eta lortzen duenagaz, *"beti geratzen zaigu gehiago egin genezakeen zalantza"*. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jon Urresti**

Birziklapena 2004an

Gutxi baina **behera egin** zuen pasadan urtean **zabortegira eroandako hondakin kopuruak, %7,1 egin du gora birziklatutako paper kopuruak eta %36,7 arroparenak**

Hil honen amaieran ipiniko du martxan Getxoko Udalak birziklapenaren aldeko kontzientiazio eta sentsibilizazio kanpaina. Baina hori baino lehen, birziklatzearen inguruan 2004a zelari joan zen azaldu du Ingurumeneko zinegotzi Fernando Burzakok. Datuen arabera, papera eta arropa izan ziren iaz gehien birziklatu ziren gaiak, eta 2003ko kopuruak alderatuz nabarmena izan da igoera.

Getxoztarrek pasadan urtean birziklatu zutenaren berri eman du Getxoko Udaleko Ingurumen sailak. Fernando Burzakok zinegotziak azaldu duenez, "oraindik zabortegira bideratzen den hondakin kopurua handia da, gehiago birziklatu behar dugu, iaz birziklatutakoaren zenbatekoa igo egin da aurreko urteagaz alderatuz gero, baina oraindik badao non hobetu".

Getxoztarrek 32.616.418 kilo hondakin solido sortu zituzten 2004an, eta horietatik 27.697.222 kilo zabortegira eroan ziren. Bestela esanda, getxoztar bakoitzak 388 kilo hondakin sortu zituen iaz.

Hala ere, getxoztar askok birziklatu ere birziklatu zuten. Berbarako, 2.757.443 kilo paper batu ziren birziklatzeko, aurreko urtean baino %7,1 gehiago. Biztanleko ia 33 kilo paper birziklatu ziren 2004an. Horrek beste irakurketa bat ere badauka: 38.598 arbola gutxiago ebaki ziren, eta 821.586 metro koadroko baso bat salbatu



Herritar bakoitzak batez beste 388 kilo zabor sortu zituen iaz

zen. Bestalde, 1.269.449 kilo beira bidali ziren birziklatzera, 15 bat kilo biztanleko. Ondorioz, 1.573 tona lehengai aurrezteko lortu zuten getxoztarrek.

«Getxoztarrek 38.598 arbola ez ebakitzea ahalbidetu zuten 2004an»

Ehun kopurua handitu da

Ehun kopuruari dagokionez, birziklatzeko eroan zen arroparen eta ehun-gaien zenbatekoak ikaragarri egin zuten gora. 2003koagaz alderatuz %36,7 igo zen pasadan urtean; guztira, 204.544 kilo. Birziklatutako ontzien kopuruak %2,07 egin zuen gora. 678.460 kilo ontzi bildu ziren, 8,08 kilo biztanleko. Azkenik, pilen eta fluorezenteen kopurua mantendu zen: 8.020 kilo eta 1.280 kilo, hurrenez hurren.

Urtea hasi berri dugu eta asko dago oraindik egiteko. Azken datuen arabera, mundu guztiak EAEk beste energia, lur... kontsumituko balu bizitzen jarraitu ahal izateko beste 2,5 planeta beharko lirake. Atera kontuak! m

Zifra batzuk

BIRZIKLATUTAKOAK

- **Papera:** 32,83 kilo/biztanleko.
- **Beira:** 15,11 kilo/biztanleko.
- **Ontziak:** 8,08 kilo/biztanleko.
- **Ehunak, guztira:** 204.544 kilo.

HONDAKINAK

- **Hondakin kopurua biztanleko:** 388 kilo
- **Guztira batutako hondakin kopurua:** 32.616.418 kilo.
- **Zabortegira eroandakoa:** 27.697.222 kilo.

Fadurako urak urte osoan bero **Igerileku olinpiarra** urte osoan erabili ahal izango da eta martxoa aldean zabalduko ditu ateak



Fadurako kanpoko igerilekuaren estaltze lanak

Udagoien, negu eta udaberriaren hotzetik ihesi, babespean; udan Eguzki amandarearen izpiei itxaroten. Hala bada, Fadurako urak urte osoan bero. Igerileku olinpiarri estalkia ipini dio Getxoko Udalak, eta guztira 2.623.000 euroko kostua eduki dute lanek. Estalita dagoen EAEko igerilekurik handiena da eta udaberri partean zabalduko ei ditu ateak, Gobelako kiroldegiaz batera, gutxi gorabehera. Izan ere, Udal arduradunek iragarri moduan, martxorako edo lan guztiak amaituta egongo ei dira.

Igerilekuak 50x21,5 metroko perimetroa dauka, hortaz, 1.075 metro koadroko azalera. Horren albotik, sakonera handiena daukan gunean 1,5 metro dauka. Estalita egongo den sasoian igerilekuaren inguruan 1.025 m

koadroko gunee zabal bat egongo da; jesarretzeko, etzanda egoteko, eskupainuak uzteko... edota beste edozertarako. Igerilekua 3 zatitan banatuko da: 25 eta 50 metro luzerako kaleak, jolasteko edo bainurako eremu libre bat, eta umeentzako sakonera gutxioko gunea.

Igerileku olinpiarra bazkideentzako

Ikastaroak, entrenamendu-saioak, lehiaketa, txapelketa eta water-polo partidak Fadurako barruko igerilekuetan egongo dira, eta kanpoko, estalia, bazkideek erabiltzeko bakarririk utziko dute. Udal arduradunek azaldu duten legez, igerileku estalia eta Gobelakoa zabaldu arte bazkideentzako sarrera doan izango da, urtarrean tasak %10 igo badira ere. m

IBILBIDE EKOLOGIKOAK EGITASMOA GAUZATZEKO IA 22.430 EURO

Getxoko Udalak 22.427 euroko dirulaguntza eman dio aurtien Eskola Publikoaren Ikasleen Guraso Elkartearen Federazioari Ibilbide Ekologikoak egitasmoa aurrera eramateko. 1982an jarri zen lehendabiziko aldiz martxan Getxon Ingurumen Hezkuntzako programa hori, eta 10 eta 14 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago. Udalerriko 17 hezkuntza zentrotan eskainiko da programa, eta guztira 2.100 ikasleek hartuko dute parte. Lehen hezkuntzako ikasleek horma eta zuhaixken ekosistema, eta baserriak ezagutuko dituzte. Bigarren Hezkuntzakoek, ostera, hirigunea, itsasertza eta meatzaldea aztertuko dituzte. Azkenik DBHko lehen ikasturteetako programa garatzeko laguntza oraindik ez du zehaztu Udalak.

HITZALDIK ANTOLATU DITU BASOZALEAK-EK

Basozaleak elkarrekin hitzaldiak prestatu ditu hil honetarako eta martxorako. Getxoko elkarrekin mikologiko eta botanikoak 3 hitzaldi eskainiko ditu, hurrengo biak hilaren 28an eta martxoaren 14an egongo dira, hurrenez hurren, gai hauen inguruan: *Udaberri aurreko landareak* eta *Argazkilaritza digitalaren hastapena*. Villamonteko kultur etxean (Algorta) egongo dira berbaldiak 19:00etan.

EMAKUME HANDIEN IZENAK IPINIKO DIZKIETE KALE BERRIEI

PSE-EE alderdiak aurkeztutako mozio bati men eginez, Getxoko Udalak emakume getxoztar handien eta historian zehar ospetsu izan diren emakumezkoen izenak ipiniko dizkie hemendik aurrera egongo diren kale berriei. Hamaika arrazoiengatik historian emakumezkoen emaria ostendu bada ere, gizartearen, lan-munduaren, kulturaren... alde egindako lanari esker ona agertu gura die Udalak era honetan, eta bide batez, gizartearen onarpena ere.



Villa de Pientzia 5. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tlfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Oscarrak

7:35 de la mañana filma Getxoko Ibarretxe anaiek ekoiztu dute

Nacho Vigalondok (Cabezón de la Sal, Cantabria, 1977) zuzendutako *7:35 de la mañana* film laburra fikziozko film labur onenari Oscar sarirako hautagaien artean dago. Sariketa entzutetsuan lehiatuko den film labur hori Ibarretxe anaia getxoitarrek ekoiztu dute. Filmak 8 minutuko iraupena dauka eta dagoeneko 58 sari desberdin eskuratu ditu. 18.000 euro behar izan dituzte filma gauzatzeko eta Eusko Jaurlaritzaren 12.000 euroko diru-laguntza jaso dute. Otsailaren 27an egingo da Los Angelesen Oscarren sari banaketa, eta beste lau hautagaigaz batera lehiatuko da Vigalondoren film laburra, zorte ona opatzea besterik ez zaigu geratzen. ^m

VIEJO
kopak eta giro jatorria
Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

amesti
obra proiektuak
Berrikuntzak Erakuntzak
Etxebizitzak Lokalak Bulegoak
Basagoiti etorb. 56
48.991 Algorta
Tel. 944 915 298
Fax 944 915 299
amesti@amesti.com

Aixerrota institutuko euskara taldea

“Taldekoek euskara badarabilte, bada zerbaite”



Asier Amezaga orain gutxi arte egon da Aixerrotan ikasten

Aixerrota institutuan euskara taldea sortu dute 10 bat ikaslek, atsedendian batzen dira Euskara banaketa gelan, martitzen eta barikuetan. Taldeko dinamizatzaile Asier Amezagagaz jardun dugu eta berak dioen legez: “agian lehenengo urtean ez dugu askorik lortuko, baina bagabiltza, eta ia etorkizunari begira ikasle gehiago inplikatzeko diren, euren gustuko gauzak antolatuzeko”.

—Zein helburugaz sortu da taldea?

—Gela bat prestatu dugu, euskaraz egiteko, jolasteko... Jokuak dauzkagu, musika, ordenagailua, pelikulak edo bideoak jartzen ditugu... Helburua jendea erakartzea da, eta euren artean euskaraz egitea. Gure asmoa da astero-astero zeozer antolatzea, eta aste kulturalen parte-hartzea. Gero, ahalegin-tzen gara herrian antolatzen diren ekintzen berri ematen. Gabonen aurretik ostiral guztietan bideo bat ipini dugu, batzuetan jendea hurreratu da, eta besteetan inor ez.

—Zeintzuk dira beharrak eta oztupoak?

—Oraindik taldea edota proposamena oso instituzionala ikusten dute ikasleek. Printzipioz helburua zen instituziotik banatzea eta ikasleak inplikatzeko, baina oraindik ez dugu lortu. Hala ere, atsedendietan etortzen direnak ez dute horrela

ikusten, eta hori ondo dago. Beste oztupo bat da atsedendian dela, eta ordu erdian ez daukagu denbora askorik. Gure gela dagoen lekua ere ez da egokiena, atsenaldira doazenean ez dira albotik ere pasatzen, 3. pisuraino igo behar dute. Gela ondo dago, baina kokapena ez da egokiena.

—Bizi al da euskara pasilloetan?

—Neu ere Aixerrotako ikasle izan naiz, eta badakit zelan dagoen “asuntoa”. Institutuko pasilloetan euskara entzutea arraroa egiten zaizu. Horregatik, egiteko aukera ematea da kontua. Taldekoek edo etortzen direnak behintzat, nik uste, euren artean euskaraz egiten dute eta hori bada aurrerapausu bat. Iaztik hona, gauzek hobera egin dute: taldea dago, gela daukagu, baliabideak hobetu dira... 10 horiek gutxienez eus-

“Euskaraz egitea erabaki genuen, gero erabakia ohitura bihurtzen da”

karaz egiten badute hori lortu dugu. Nik beste lagun batekatz batxilergo lehengo urtean erabaki genuen euskaraz egitea, erabaki hori hartu genuen, gero ohitura hartzen duzu eta ostean ohitura hori agian bes-teen artean ere zabaltzen da. Baina nozbait erabaki hori hartu behar da. ^m

Gaztai azoka Algortan

Hileko azken asteburuan goizez eta arratsaldez



Hilaren 25, 26 eta 27an ahozeruaren gozagarrirako hamaika gaztai-zapore egongo dira dastagai

Otsaileko azkenengo aste-akabuan, hilak 25, 26 eta 27, Gaztai azoka egongo da Algortako Geltoki plazan. Gaztai mota desberdinak dastatzeko eta erosteko aukera polita edukiko dute egun horietan Algortara hurbilduko direnak. Goizez eta arratsaldez egongo dira zabalik postuak, eta gainera ordutegi zabala edukiko dute: goizean 11:00etatik 15:00etara, eta arratsaldean 17:00etatik 22:00etara.

Gaztaiaren azoka antolatzen duten lehenengo urtea da, eta antolatzailen esa-

netan iraunkorra izango ei da, urtero-urtero eta data berdintsuetan egingo da azoka. Hamar bat salmahai ipiniko dituzte, eta euskal gaztaigileez gain Asturias, Santander eta Gaztelakoak ere etorriko dira. Lehenago azaldu bezala, mota askotako gaztaiak egongo dira dastagai, Idiazabal gaztaia ez da faltako, eta ardi-esnez egindakoez gain ahuntz eta behi-esnez egindakoez ere erosi ahal izango dira. Beraz, gaztaiaren usainak bustiko ditu Algortako bazterrak hilari agur esateko. ^m

ALBE-K ANTOLATUTAKO IV. ABRA SARIA OTSAILAREN 26AN EGINGO DA

Algortako Bertsolari eskolak antolatzen duen Abra saria hilaren 26an egingo da, 19:00etan Areetako Andres Isasi musika eskolan. Udaleko Euskara zerbitzuak lagundutako txapelketaren IV. edizio honetan lehiatuko diren bertsolari gazteak hurrengoak dira: Andere Arriolabengoa (Aramaio), Joanes Igeregi (Sopela), Oihana Bartra (Bilbo), Agin Rezola (Astigarraga), Eneritz Zabaleta (Baiona), eta Jon Elizetxe (Baztan). Gaijartzaile lanetan, ostera, Josu Esnaolak jardungo du. Euskal Herri osotik heldutako gazte hauen bertsuak entzun gura dituenak, beraz, badauka hitzordua. Azkenik esan sarrerarik ez dela ordaindu behar.

UNIBERTSITATEKO KULTUR AISIALDIKO IKASTAROAK MARTXOAN HASIKO DIRA

Destuko Unibertsitateak Getxoko Udalararen laguntzagaz Unibertsitateko Kultur Aisialdiko programa eskainiko du aurten ere. Pasadan urtean legez, 4 ikastaro eskainiko dira, bakarra euskaraz. Ikastaroen izena emateko epea hilaren 28ra arte dago zabalik Villamonteko kultur etxean. Ikastaroak martxoan hasiko dira eta 60 euroko prezioa daukate. Astelehen edota martitzenetan emango dira ikastaroak, hautatutako gaiaren arabera, eta hurrengo ordutegian: 17:00-18:30 eta 19:00-20:30. Gaiak ondorengoak dira: “Naturaleza y romanticismo: paisajistas franceses e ingleses en la primera mitad del siglo XIX”, “Miguel Unamuno: pentsatzea, sentitzea, bizitzea”, “Análisis y resolución de conflictos...” eta “Escritoras de posguerra, 1940-1970”.

san inazio
autoeskola
1951n sortua
LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak
Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

GOIZEAN
“Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxareriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKAK
Araniza Etxebarria
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI
Bidebarri 27, behea eskuina. ALGORTA 94 94 430 76

IRATI
moda gaztea opariak
Torrene 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Basolanak
• Zuhaitzen landaketa
• Podak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak
Lorategien zainketa
DEITU!
T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Gazteentzako plana

Herriko gazteen **parte-hartzea** helburu duen egitasmoa ezagutzera ematen dabilta Udaleko arduradunak

Gazte Plana Foru Aldundiak sustatzen duen egitasmoa da eta gura duten udalek bere egiten dute. Helburua gazteei bideratutako baliabideak gazteen beraien beharretara egokitzea da. Horregatik, “zuk badakizu inork baino hobeto behar duzuna” lemapean gazteen parte hartzea bultzatzen da.

Leioako Gazte Bulegoak zuzentzen duen plana fase honetan dago hain zuzen ere. Gazte Bulegoko arduraduna den Monica Villanuevak azaldu digunez, *“oraindik jendeak ez du proiektua ondo ezagutzen eta parte hartzea ez da oso handia izan”*. Beraz, gazteen iradokizunak eta proposamenak gazte bulegora heltzeko deia zabaltzen

«Orain da gazteek nahi dituzten ekintzak eta jarduerak proposatzeko unea»

dute Gazte Bulegotik. Horretarako, hiru bide ezberdin aipatu dizkigu Monicak berak: *“Kultur Leioa webguneko Gazte Foroan (kulturleioa.com), Gazte Bulegora gazte@leioa.net helbidera mezua igorritz edota Bulegoan bertan aurkeztuz”*.

Aurretik, ordea, behaketa eta azterketa sakona egon dira. Monicak esan digunez hasieran egoeraren azterketa egin zen: *“Alde batetik, gazteei zuzendutako baliabideak aztertu dira eta bestetik gazteen bizimodua behatu da inkesta baten bidez”*. Hurrengo urrats batean herriko alor ezberdinetako



Argazkian, Monica Villanueva Gazte Bulegoko arduraduna

ordezkariekin lan taldeak osatuko dira baliabide horien gabeziak eta indartu beharreko guneak zehazteko. Orain gazteek nahi dituzten ekintzak eta jarduerak proposatzeko momentua da.

Zerbitzu ugari Gazte Bulegoan

Ikasketak, enplegua eta oposizioak, bidaiak, aterpetxeak, ikasle zein gazte txartelak, etxea erosteko dosierak, aisialdirako proposamenak, atzerrian lan edo ikasketa bilatzeko

informazioa... zerbitzu ugari eskaintzen dituzte Gazte Bulegoan. Gainera Bulegoko Monica Villanuevak dionez, *“edozein zalantza edo informazio argitzen eta bideratzen saiatzen gara”*. Informazioaz gain gazteentzako ekintzak ere antolatzen dituzte. Hala nola, *“lehiaketak, eski irteerak, perkusio ikastaroak, orain ere mitologia hitzaldi bat prestatu dugu eta datozen hilabeteetarako zehazteke dauzkagun zenbait gauza ere egongo dira”*. m

Iñigo Bilbao > Patagonian izan da abentura lehiaketa batean

“Lortu dudan saririk handiena han ezagututako jendea izan da”



Iñigo Bilbaok hamabi kilo galdu zituen lehiaketan

Iñigo Bilbao leioztarra Patagoniako lurraldeetan izan da telebistako abentura lehiaketa batean parte hartzen. Txoperako auzokideak sari nagusirik eskuratu ez badu ere, lehiakideen adiskidatasun estua irabazi du. Izan ere, Iñigok berak aitortu digunez, *“lortu dudan saririk handiena han ezagututako jendea izan da”*.

Argentina hegoaldea zirrargarria da. Esquel, Bariloche edo Ushuaia bezalako inguruetan sakabanaturiko herrixketatik kanpo gizakiaren aztarnarik ez dago eta naturak agintzen du. Iñigok klima aldaketa bortitzak aipatu dizkigu, *“harrigarria zen eguna eguzkitsu irten eta*

bat-batean ekaitzak zelan hartzen zuen zerua”.

Dena den, zailena janariaren kontua izan da. Janari apurra banatu beharrak eta lehiaketa aurrera egiteko proba fisikoek eguneroko kontua gogortzen zuten. Abenturazale honek dioenez, *“han egondako 16 egunetan 12 kilo galdu nituen”*. Bestetik, telebistan ikusten dena askotan ez dator bat gertatutakoarekin; *“produktoreek erabakitzen dute zer atera eta zer ez, normalean haserrealdiak, iskanbilak, pozak, negarrak... bilatzen dituzte”*. Iñigoren esanetan, oro har, polita izan da bizitako esperientzia hau, errepi-katzeko modukoa. m

SENTIMENDUZ BETETAKO DANTZA IKUSKIZUNA HILAREN 26 ETA 27AN

Otsailaren 26 eta 27an Kulur Leioan “Despertar los sentidos” izeneko dantzaldia antzeztuko dute. Sarah Ramírez Madrilgo Goi mailako Antzeppen eta Dantza Eskolako kideak zuzentzen duen proiektuak arteaz haratago ezintasun fisiko zein zentzumen ezintasunen bat duten pertsonak laguntzea du helburu. Horretarako eta pertsona hauen bizi kalitatea hobetzeko dantza garaikideak, musikak eta gorputz adierazpenak dituen aukerez baliatu da. Lan handi honen ondoren horra hor emaitza: aniztasuna, ezberdintasuna eta sentimenduz beteriko koreografia. Benetan hunkitu eta aho zabalik utziko gaituen emanaldia.



OTSAILAREN 27AN TOLOÑO MENDIRA

Leioa Mendi Taldeak oraingo honetan Toloño mendia aukeratu du hamabostean behin antolatzen duen irteera egiteko. Gainera, oraingo honetan bazkaria ere aurreikusita dago. Izan ere, inguruko ohituretara hurbiltzeko taldeak bazkaria egingo du Eltziegoko upelategi batean. Araba eta Errioxa artean dagoen mendi tontorrera heltzeko igoera goiz partean burutuko da Labastidatik irtenda eta San Gines ermitatik igarota.

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hurstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



Betizu jaia

Otsailaren 8an, inauterietako asteartean, Betizu jaia ospatu zuten udaletxe aurreko plazan. Puzgarriak, tailerrak, ludoteka eta beste hainbat jolas eduki zituzten txikienek ondo pasatzeko goiz eta arrats. Horrez gain, arratsaldean, Kapikuaren zirku-kalejira komikoa ere eduki zuten eta ostean BT musika taldearen kontzertua. Euskal Telebistaren bidez ezagunak egin diren neska-mutil gaztetxoek ikuskizunaz gozatu zuten Betizuren jarraitzaileek, plazan eginiko zuzeneko emanaldian. Mozorrotuta edo mozorrotu barik, baina euren saltsan ibili zen Erandioko neska-mutil piloak.



2004ko ekobarometroa herritarrek pozik bizi dira Erandion



Etxebizitzen prezio altuak eta enplegu aukera eskasak dira herritarrek sumatzen dituzten arazo larrienak

Bizitzeko eta lan egiteko oso leku apropostzat daukate Erandio bertako bizilagunek. Horrela erakusten dute, behintzat, 2004ko ekobarometro sozialaren emaitzek. Erandion bizi diren 15 urtetik gorakoen artean egin dute galdeketa, 390 pertsonako lagina osatuta eta etxerik etxe elkarrizketa pertsonalak eginez. Ingurumenarekin zerikusia duten gaietako iritziak eta datuak jaso dituzte gehienbat galdeketa bidez.

Ekobarometroaren ondorio nagusien artean, lehenengo azpimarratzekoa da Erandio bizileku dutenak pozik edo oso pozik daudela (%84) herrian bizitzearekin. Jendarteko harremanak izateko erraztasuna eta herrian sentitzen duten segurtasun-maila handia adierazi dituzte faktore positibotzat.

Bestalde, enplegu aukera eskasak eta etxebizitzaren prezio altua dira herritarrek sumatzen dituzten gabezia edo arazo nabarmenenak. Horregatik, herri mailan eta gizarte gaietan zein arlotan jardun beharko litzatekeen galdetuta, hiru dira nagusiki aipatzen direnak: etxebizitza lortzeko bali-

bideak jartzea, gazteentzako zerbitzu gehiago sortzea eta emakumea lan merkatuan txertatzen laguntzea.

Herriak dituen ingurumen arazoez informazio nahikoa duela uste du galdetutako %57k eta, gainera, gaiarekiko interes handia erakusten dute. Erandion ingurumenaren egoera azken urteotan hobetu egin dela uste du lautik hiruk eta pertsona gehiago dira ingurumen arloko gaietan herrian nahikoa egiten dabilzala uste dutenak gutxiegi egiten dutela uste dutenak baino. Natur ondarea babestea eta berdegune gehiago egokitzera, zaraten arazoari aurre egitea eta garraio publikoa hobetzea dira erandioztarrek herri mailan lehentasunez landu beharreko gaitzat jotzen dituztenak.

Naturaren babeserako elkarrekin edo talde ekologistetan parte hartzen duten herritarren kopurua oso txikia da (%1) eta gauza bera esan daiteke talde bakezale, feminista edo kontsumitzaileen elkarrekitako partaidetzari dagokionez. Gainera, herritarrek foroetan parte-hartzea gustatuko litzatekeen galdetu eta gehienek ezetz erantzun dute; %16k baino ez du baietz erantzun. m

FITO RAMIREZ ESCUDEROREN PINTURAK IKUSGAI ERANDION

Urtarrilaren 28an hasi eta martxoaren 19ra arte Fito Ramirezen azken lanak erakutsiko dituzte Altzagako udal azokan. Emilia Epelde eta Mikel Mardaras galeristek antolatuta duten erakusketa honetan tamaina handiko 24 olio-pintura, beste 40 tenpera eta areto honetarako bereziki egindako mural bat ikusi ahal izango dituzte bertara hurbiltzen direnek. Modernitateari lotutako pintura da 800 metro koadroko aretoan Ramirezek erakusten duena. Koadro askotan aurpegiak eta begiak nabarmentzen dira eta tituluetan umoreari ere egiten zaio leku. Fito Ramirez Escudero Leioako Campusean ari da Arte Ederren Fakultatean pintura irakasle eta horrelako erakusketa handi bat egiten duen lehenengo aldia da. Goizetan 11:30etik 13:30era eta arratsaldetan 17:00etatik 20:00etara dago zabalik aretoa.

KORRIKAREN AURKEZPENA MARTXOAREN 4AN

Herriko Korrika Batzordeak martxoaren 4rako prestatu du 14. Korrikaren aurkezpen ekitaldia. Altzagako azokan egingo da arratsaldeko 7:30ean eta edizio honi buruzko informazioa jasotzeaz gain, antzerkia, musika eta dantza osatutako ikuskizun bat ere egongo da. Martxoaren 10etik 20ra, Euskal Herri osoan ibiliko da Korrika, Orreagatik Bilbora, lekukoa eskurik esku pasatuz eta euskara aldarrikatuz. Martxoaren 19an ailegatuko da Korrika Erandiora.

HERRIKO TOPONIMIA JASOTZEKO AZTERLANA EGINGO DU UDALAK

Erandioko toponimia oraindik jaso gabe dagoela eta herriko kultur ondarearen zati garrantzitsu bat delakoan, bertako hainbat leku, baseri, iturri, mendi izen eta abar desagertu aurretik jaso eta aztertzea erabaki du Erandioko Udalak. Hori dela eta, herriko toponimia jaso eta finkatzeko beka deialdia egin du eta Iratxe Lasa izan da beka irabazi duena. Iratxek 14 hilabete edukiko ditu lana osatzeko. Alde batetik, artxiboetako informazioa aztertu beharko du eta, bestetik, herriko bizilagunen lekukotasunak jasoko ditu, denboraren poderioz galduz edo itxura aldatuz joan diren toponimoak berreskuratu ahal izateko. Izan horiek berreskuratzeko azterlan egin ondoren, gaur egun indarrean diren arauetara egokituko ditu Euskaltzaindiak eta, ondoren, Udalaren egitekoa izango da izen horien erabilera bermatzeko neurriak hartzea.

ESAERA ZAHARREN XII. SOPELA-AEK SARIKETA MARTXOAREN 5EAN

Martxoaren 5ean egingo da Sopelanako AEK-k antolatzen duen eta aurten korrika kulturalaren barruan dagoen Esaera Zaharren sariketa. Prestatu beharako 100 esaerak aukeratu dituzte dagoeneko eta parte hartu gura dutenek otsailak 25 baino lehen eman beharko dute izena. 16 urtetik gorako edonork parte har dezake eta taldeak gehienez lau partaidez osatuta egon beharko dute. ALBEko bertsolariek bertsoa botako dute eta partehartzaileek bertsoari hobekien egokitzeko zaion esaera zaharra igarri beharko dute. Arratsaldean Onintza Enbeitak eta Xabier Silveirak jardungo dute.

informazio gehiago: 94 676 48 76



DAVID PEREZ DA MUNDUKO BODYBOARD ZIRKUITUKO TXAPELDUNA

David Perez gazte sopoloztarrak irabazi du Munduko bodyboard zirkuitua, World Qualifying Tour (WQT) arloan. Urtarila amaieran eskuratu zuen txapela eta txapelketa irabazten duen lehenengo euskalduna da. Maui (Hawai) jokatu zen zirkuituko azken proban lehiatu ez bazen ere, alde aurretik zeukan puntu kopurua nahikoa izan zen Damian King-en (Australia) eta Jeff Hubbard-en (AEB) aurretik geratzeko. Bodyboard-a surfaren anaia txikia izaki, ez dauka surfak besteko "laguntzarik", eta hori egiaztatzen du, munduko txapeldun izanda ere Perezek ez daukala babeslerik. Perez, zorionak!

Sopelanako elkartasuna

Saharauiei eta Guatemelako andreei lagunduko zaie



Udalak Mugarik Gabe GKEak Guatemalan daukan proiektu bat ere lagunduko du

Sopelanako Udalak herri saharauia-rentzat eta Guatemalako laguntzak emango ditu aurten ere. Alde batetik, Tindufeko kanpamenduetan dauden errefuxiatu saharauiei laguntzeko bi proiektu bultzatu ditu; bestetik, Guatemalan emakumeentzako heziketa programa batean hartuko du parte.

Badago martxan udan ume saharauiak etxean hartzeko kanpaina. "Oporraldia bakean" programan parte hartu gura dutenek, hau da, 7 eta 12 urteko haurrak etxean hartu gura dituzten familiek, udaletxera deitu besterik ez dute egin behar. Bestalde, Sopelanako Udalak Euskal Fondoaren bitartez, Saharako

errefuxiatu kanpamenduen arteko komunikazioa hobetzeko proiektu bat gauzatzen lagunduko du. Urtero legez, aurrekontuaren %0,7 bideratuko du Euskal Fondora, kasu honetan 30.000 bat euro.

Horrez gain, Mugarik Gabe GKEak Guatemalan daukan beste proiektu bat ere bultzatuko du udalak. San Miguel de Tucuru herrian (Goi Verapaz) emakumeek unibertsitateko ikasketak egin ahal izateko bekak eskaintzen ditu GKE horren proiektuak, eta beka horiek gauzatu daitezkeen 6.000 euroko diru-laguntza emango du, hain zuzen, Sopelanako Udalak. ^m

Informazio gehiago: 94 406 55 05

Maria Victoria Resano > erizaina

"Tabakismoa gaixotasun kronikoa da eta erretzeari uzten laguntzea da sendagaia"



Informazio gehigarria gura duen sopoloztarrak anbulatorioara dei dezake: 94 676 41 19

Bigarren urtea da Sopelanako anbulatorioan behar egiten duen Maria Victoria Resano erizainak erretzeari uzteko programa eskaintzen duela. Berak azaldu digunaren arabera, "tabakismoa gaixotasun kronikoa da, eta guk gaixoei lagundu behar diegu, erretzeari uzten laguntzea da sendagaia". Resanok azaldu digu zertan datzan programa, baina behin eta berriz errepikatu du lehenengo eginbeharra uzteko erabakia dela, "utzi gura izatea" dela, eta "behin hori erabakitzen dutenean guk prozesuan lagunduko diegu". Resano erretzaile ohia da, beraz badaki zertan dabilen. 14 urte zituela hasi zen erretzen, 17 zigarro erretzen zituen egunean zehar eta 15 urtez izan zen erretzaile. Egun batean erabaki sendoa hartu eta 10 urte dira ez duela zigarrorik erre. Eskarmentua beraz, badauka. Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak antolatutako ikastaro batzuetan eman zuen izena, erretzaileei laguntza zelan eskaini jakiteko. "Lehenengo erretzailearen

historia egiten da, zenbat urte daroa erretzen, zenbatetan ahalegindu da uzten, daukan menpekotasun maila, motibazioa...". Resanok azaldu moduan hori da programako lehenengo pausua.

Huts egiteak ikasteko balio du

Gero erizainak eta erretzaileak estrategia bat prestatzen dute. Horren ostean erabakitzen da ekintza egitaraua: partxea ala tratamendu farmakologikoa hautatzea. Eta azkenik erretzeari guztiz uzteko eguna aukeratzen da. Kontsulta edo programa dohakoa da baina tratamendua ez, "egunero zigarro pakete bat erosteko daukanak badauka tramendua ordaintzeko beste eta soberan", diosku Resanok. Programa egitea erabaki dutenen erdiak erretzeari uztea lortu du, baina Resanok dion legez: "huts egiteak ikasteko balio du, egindako akatsak berriro ez errepikatzen, berriro ahalegintzea merezi du, zure osasunak merezi du". ^m

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

LAIKAK Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

ANDER DEVINA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutza 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991

Wuri haizta jan eta edan

4 bide pinturak

RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

PUENTING EGITEKO IRTEERA ANTOLATU DUTE

Otsailerako Gaztelekuak puenting egiteko irteera antolatu gura du. Oraindik ez daukate data zehatzik, parte hartuko dutenen arabera erabakiko dutelako irteera noiz egin. 14 urte baino gehiago dauzkaten neska-mutilei zuzenduta dago jarduera eta 18 bat euroko prezioa dauka. Prezio horren barruan sartzen dira bi salto eta jarduera egingo den lekurainoko autobusa.

informazio gehiago: 946682143

BERANGOZTARREN DIRU-LAGUNTZA JASOKO DUTE ITSASIKARAREN BIKTIMEK

Asiako hegoaldeak jasandako itsasikararen biktimezako diru-laguntza bidaliko dute berangoztarrek. Hilaren hasieran antolatu zen inauteri jaiaren diru-laguntza biltzeko kutxa bat ipini zuen Berangoko Udalak eta ekitaldia amaitutakoan 680 euro bildu ziren, Unicef-en bitartez "tsunamiaren" biktimei helaraziko zaiena.



Ume saharaiak gurean

oporraldia igarotzeko kanpaina martxan da



Oso baldintza latzetan bizi dira saharaiak Aljeriako basamortuan

Aljeriako errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren ume saharaiak udaldia gurean pasatzeko kanpaina martxan da. "Oporrak Bakean" egitasmoagaz bat egin du Berangoko Udalak aurten ere, eta dagoeneko zabalik dago eskaria egiteko eta inprimakiak betetzeko epea. Hori egiteko azken eguna martxoaren 10a izango da. Ume saharaiak etxean hartu gura dituzten familia berangoztarrek udal bulegoetara hurbildu baino ez dute egin behar eta bertan eskuratuko dituz-

te betebeharreko inprimakia edota informazio gehigarria.

Datozen uztaila eta iraila bitartean, 7 eta 12 urte bitarteko 460 haur saharai etorriko dira Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabara. Haur horiek egunero bizi duten egoera latz eta larriari aurre egin diezaioten laguntza ematea da programaren helburua, gurean oporraldi osasuntsu eta baketsua eskaintzea, eta hori bera bultzatu gura du Berangoko Udalak ere. **Informazio gehigarria: 94 668 00 08**

Jose Luis Rebolledo > Santiago bidearen antolatzailea

"Bidea apurka-apurka egingo dugu, etapa-ka, eta 2010ean helduko gara Santiagora"



Argazkian, Jose Luis Rebolledo

Santiago bidea egiteko prestatzen dabilta gorliztarrak. Jose Luis Rebolledok izan zuen ekintza antolatzeko ideia eta Kultur Etxeari proposatu zion. Eta bidea egiten hasi dira, Rebolledok hartu du ibilbidea prestatzeko ardura eta Kultur Etxeak ekintza kudeatu eta jakitera ematekoa. Ibilbidea etapaka egingo da, ibilbide txikitik, Rebolledok azaldu digun legez: "guziok ez daukagu hilabeteko oporrak hartzeko aukera, edo 750 km jarraian egiteko gaitasuna, Gasteiz aldean etapaka antolatu zuten bidea, eta ideia polita ematen du". Orreagatik hasi eta Santiagoraino, Done Jakueren bideak 750 km ditu, eta tarte hori 28 etapatan banatu dute. Aurten 6 etapa egiteko asmoa daukate, Orreagatik Logroñora doan tarte. Apurka-apurka, etapaz etapa bidea eginez 2010ean espero dute Santiagora heltzea, Done Jakueren urtea ospatuko den garaian. Lehenengo etapa apirilean egingo ei dute, Orreaga eta Larrasoña arteko 27 kmak. Rebolledok azaldu digunez, "bariku

gauean edo goizaldean hartuko dugu autobusa nora arte joan behar dugun kontuan hartuta, zapatu goiz eta eguerdi partean etapa egin eta gauenako etxean egongo gara domekan deskantsatzeko". Aurten etapa hauek antolatuko dituzte: Orreaga-Larrasoña, Larrasoña-Iruñea (15km), Iruñea-Puente la Reina (24km), Puente la Reina-Lizarran (19 km), Lizarran-Los Arcos (20,5km), eta Los Arcos-Logroño (27,5km). 2006an beste 6 etapa egingo dira, hurrengo 3 urteetan bosna etapa; azkenik, 2010ean bakararra, Santiagoko helmuga erdietsiko duena.

Denontzako aukera

"Ez da golzitarrentzako ekintza bakarrik, adin eta gaitasun guztietakoek egin dezakete; batz bestea, etapak 25 kmkoak dira, 6 edo 8 orduetan egitekoak". Parte hartzeko Kultur Etxera hurbiltzea besterik ez duzu egin behar, eta ziur egon gorliztarren zaindaria gidari izango duzula. **m**



TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

01 SOPELNET S.L.

- Jokoak sarean
- Txapelketak
- Internet
- Txat
- E-mail
- Lanak

ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknikoak
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax:94

ERAKUSKETA BERRIA PARATU DUTE ITSAS- MUSEOAN

Itsas-postan jardun zuten ontzi-konpanien kartel iragarleek osatzen dute Plentziako Itsas-museoak orain dela gutxi antolatu duen erakusketa. Udazkenera arte ikusgai egongo dira ontzi-konpania eta transatlantikoek egindako ibilbideak iragartzen zituzten kartelak, guztira 35 bat. XX. mende hasieratik eta gaur arteko iragarki desberdinak biltzen ditu erakusketak.

“18 EGILE-18 ARGAZKI. URIBE KOSTAKO IRUDIAK” ERAKUSKETA PLENTZIAN

Pasadan urtean aldizkari honek antolatutako erakusketa ibiltaria Plentziako kultur etxean egongo da ikusgai hilaren amaiera arte. Uribe Kostako 18 argazkilari handik utzitako 18 argazki apartek osatzen dute erakusketa. Iaz argazkiok UKren erdiko orrietan atera genituen.

EUSKARAZKO IPUINEZ GOZATZEKO AUKERA GORLIZEN

Ray Bueno ipuin kontalariaren euskarazko ikuskizuna antolatu dute Gorliz. Otsailaren 26an ipini dute zita herriko Erakusgelan, arratsaldeko 18:30ean. Beraz, euskarazko ipuinez gozatzeko badakizu nora jo, baina hobe duzu orduan joatea 18:40ean atek itxiko dituzte-eta.

PLENTZIA

Aldundiaren Gazteentzako programa abian



Gazteak Plentziako aterpetxean egongo dira

Gazteria martxan programa abian ipini du Bizkaiko Foru Aldundiak ikasturte honetan lehenbiziko aldiz. 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako prestakuntza programako jardura gehienak Plentzia inguruan egingo dira, baina Urduliz eta Gorliz aldean ere hainbat ekintza buruko dira. Eskalada, surfa, snorkella, kanoa jaitziera, orientazio ikastaroa... hamaika dira programak eskaintzen dituen ekintzak eta hurrengo hiru ardatzei loturik daude: ingurumen-hezkuntza sustat-

zea, osasun-hezkuntza bultzatzea, eta bake-hezkuntza eskaintzea. Programa 2 edo 5 egun bitarteko egonaldietan burutuko da, Plentziako aterpetxea ostatu hartuta. Mantenua eta egitaraua barne, 17 bat euroko prezioa dauka pertsona eta egun bakoitzeko. Gazteak Martxan programan parte hartu gura duzuen ikastetxe eta gazte elkar-teok informazio gehiago lortzeko eta erre-serbak egiteko hauxe da kontaktua:

946774265 edo 944068746

Ots.20-Mar.10

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Unai Momotoren akuarelak.** Erromoko kultur etxea. Otsailaren 26ra arte.

► **Hugo Tobio Suarezen argazkiak.** Algortako kultur etxea. Otsailak 21-martxoak 5.

► **David Arteagoitia Garcia-ren grabatuak.** Algortako kultur etxea. Martxoak 7-18.

► **Mari Carmen Cabarcosen olioak.** XVI. Emakumeen aldeko Jardunaldien barruan. Erromoko kultur etxea. Martxoak 1-12.

PLENTZIA

► **18 egile-18 argazki. Uribe Kostako irudiak, argazkiak.** UK aldizkariak bultzatutako erakusketa ibiltaria. Erakusketa gela. Otsailaren 28ra arte.

LEIOA

► **Magic Pencil.** British Councilaren laguntzagaz. Kultur Leioako erakusgelan.

BERANGO

► **Instinto urbano.** BBKren erakusketa ibiltaria. Berangoeta kultur etxea. Otsailaren 26ra arte.

ERANDIO

► **Bizkaia begira.** Joan Fontcubertaren lanak. Josu Murueta kultur gunea. Otsailak 28-Martxoak 11.

► **Fito R. Escuderoren margoak.** Udal Merkatua. Martxoaren 19ra arte

ZINEMA

GETXO

► **Nine songs.** Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsoan. Getxo Antzokia. Otsailak 18, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

► **Supertramps.** Haur Zinema euskaraz. Getxo Antzokia. Otsailak 20, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

► **Veronica Guerin.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Otsailak 23, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **Audition.** Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsoan. Getxo Antzokia. Otsailak 25, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.



Ana Popovic, blues kontzertuko musikarietako bat

► **Ekintzak gogotik**

XVI. Emakumeen aldeko jardunaldiak

Zinema, erakusketak, kontzertuak, antzerkia, hitzaldiak... hamaika ekintza egingo dira Getxon Emakumeen aldeko Jardunaldien barruan. Berdintasuna aldarrikatzeko, horren alde lan egiteko, gabeziak eta eginbeharrak azaleratzeko... eta azken finean, emakumea esparru guzti-guztietan protagonista dela erakusten duten jardunaldiak martxoaren 1etik 26ra bitarteko egitaraua beteta daukate: *Te doy mis ojos*, eta *Como una imagen* filmak eta *Molestias Clownicas* antzerki lana ikusteko aukera egongo da, *Blues Caravan-Ladies' Night* kontzertua antolatu dute, etab.

• **Non:** Getxo • **Noiz:** Martxoak 1-26

► **Zafarrancho en el rancho.** Haur Zinema. Getxo Antzokia. Otsailak 27, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

► **Te doy mis ojos.** Zine-Kluba. XVI. Emakumeen aldeko Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Martxoak 2, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **Como una imagen.** Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsoan. XVI. Emakumeen aldeko Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Martxoak 4, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

► **Doraemon gladiadora.** Haur Zinema euskaraz. Getxo Antzokia. Martxoak 6, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro

► **Maria Llena eres de gracia.** Zine-Kluba. XVI. Emakumeen aldeko Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Martxoak 9, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro

ERANDIO

► **Film laburrak. Amuak, Amnesia, El salto de Beamon, Ostertz, Lepokoa eta Hara** filmak. Berbots Erandion

Euskaraz elkartearen ekimenez. Josu Murueta kultur gunea. Otsailak 24, eguena. 20:00.

GORLIZ

► **Totally Spies.** Erakusgelan. Otsailak 27, domeka. 17:00.

LEIOA

► **Maria Querida.** Kultur Leioa. Martxoak 8, martitzena. 12:00.

► **Los chicos del coro.** Zine komertziala. Kultur Leioaren Auditoriuma. Otsailak 19, 19:00 eta 22:00. Otsailak 20, 20:00. Otsailak 21, 20:00.

► **The Rock Horror Picture show.** Perseo zineforuma. Musikalen zikloa. Kultur Leioaren Auditoriuma. Otsailak 22, martitzena. 20:00.

► **Un tranvia llamado Deseo.** Perseo zineforuma. Marlon Brandoni eskainitako zikloaren barruan. Jatorrizko bertsoan. Kultur Leioaren Auditoriuma. Martxoak 1, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

► **El Bravo.** Perseo zineforuma. Marlon Brandoni eskainitako zikloaren barruan. Kultur Leioaren Auditoriuma. Martxoak 8, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

BERANGO

► **Mindhunters.** Gazteleku. Otsailak 27, domeka. 17:30.

ANTZERKIA

GETXO

► **Molestias Clownicas.** Oihulari Clown. XVI. Emakumeen aldeko Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Martxoak 5, zapatua. Sarrera: 8,50 euro.

GORLIZ

► **Ray Bueno.** Ipuin-kontalaria. Euskaraz. Eloisa Artaza kaleko gela. Otsailak 26, zapatua. 18:30.

SOPELANA

► **Cosas de la vida.** Itzartu elkartearen ekimenez. Kultur aretoa. Martxoak 6, domeka. 19:00.

MUSIKA

GETXO

► **Blues Caravan-Ladies' Night: Sue Foley, Candy Kane eta Ana Popovic.** XVI. Emakumeen aldeko Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Martxoak 3, eguena. 21:00. Sarrera: 12 euro.

LEIOA

► **Xomorroak.** Haurrentzako musikala euskaraz. Kultur Leioa. Otsailak 20, domeka. 12:00. Sarrera: 3 euro.

BESTEAK

LEIOA

► **Despertar de los sentidos.** Dantza ikuskizuna. Down Sindromea daukaten ezinduen aldeko jaialdia. Kultur Leioa. Otsailak 26 eta 27. 20:30. Sarrera: 10 euro.

BARRIKA

► **Emakumearen eguna.** Martxoaren 8aren jatorria, Hizkuntza sexista" mahaingurua, kafea eta ezustekoak. Liburutegia. Martxoak 8, martitzena. 17:30.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Q V S

20 ANIVERSARIO
URTEBURREN

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net





Agate deuna

Urtero lagun mordoia irteten da gure eskualdean Agate Deunaren omenezko koplak abestera. Oso ohitura errotua da gurean. Herri guztizietan lagun taldeek lurra, euren makilakaz kolpatuz, neguko lozorrotik esnarazten dute. Orrialdeotara otsailaren 4an gauzez Algorta inguruan kantatzera atera ziren lagun horietako batzuk dituzue.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Algortako merkatu txikiak -askok *Los gitanos* izenagaz ezagutzen duten horrek- hogeitertetik gora dauzka bete-ta dagoeneko. Zelanbaiteko heldutasuna dauka honezkero, beraz, eta aspaldi tradizio bihurtuta dugula esan dezakegu lasai asko. Astean egun bitan bertara hurbiltzen diren erosle oldeek ederto erakusten dute merkatua-ren sendotasuna. Sarritan, jende artean ibiltzea ere gatxa izaten da, ehunka dira-eta jenero merke bila doazenak. Geuk ere bisita egin dugu oraingoan, baina ez ezer erostera, merkatuaz zeozer gehiago jakitera baizik.

Ijitoak bakarrik ez

Algortako merkatu txiki handia

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Datu batzuk

Izen ofiziala:
San Juan Kooperatiba Elkartea

Irekiera urtea: 1982

Saltoki kopurua: 128

Azalera: 3.300 metro koadro inguru

Irekiera egunak:
eguztena eta zapatua

Ordutegia:
9:00-14:30 (gitxi gorabehera)

Sarrera kopurua: 4



Hasteko, ahalegindu gaitzen Algortako merkatu txikiaren izen egokiaz argiren bat ekartzen. Milaka lagunek, Algortan eta inguruetako herrietan behintzat, *Los gitanos* moduan ezagutzen dute lekua; euskaraz egiten denean ere, holan esaten da: “*Los gitanosera noa*”, edo “*Los gitanosen nago*”. Bertako arduradunek, ordea, ez dute izen hori gustuko. Ez arrazismo kontuengatik, aldarrikatzen dutenez, ijitoez gain egaxuak ere badagozelako baizik. Horregatik, zuzenagotzat jotzen dute “Algortako merkatu txikia” izendapena. Hori ere ez da benetako izena, baina.

«1982an paratu zuten bertan ordura arte San Nikolasen zegoen merkatua»

Merkatuaren izen ofiziala San Juan Kooperatiba Elkartea da, baina inork gitxi ezagutzen da hala. Elkarteko idazkaria den Jesus Manuelek ere -abizenak sobera egoten dira hemen- paper batean begiratu behar izan du, gogoratzeko. Hortaz, ez da harritzekoa inguruko kirol talde mordo batean izen horregaz ezartzen duten publizitatea jende gitxi lotzea merkatuagaz. Garai batean, euren burua irratian iragartzen zutenean, “Algortako merkatu txikia” erabiltzen zuten, zertaz zebiltzan garbi egoteko. Baina aspaldi ez dute irratian

publizitaterik ipini. Jesus Manuelek aitortu duenez, “*benetako izena zabaltzeko ahaleginak egiten hasteko asmoa daukagu hementik laburrena*”.

San Nikolaseko merkatuaren oinordekoa la inork ezagutzen ez duen izenak adierazten duenez, Algortako merkatu txikia kooperatiba da. 1982an sortu zen, honezkero hilda dagoen lagun bik lekua erosi eta bertan paratu zutenean ordura arte San Nikolas plazan, kale gorrian, egoten zen merkatua (hura bai, ijitoena besterik ez). “*Sabaipean egotearren erosi zuten, eta*

Udaletxeak ere gura zuten saltzaileak kalean ez egotea”, diosku Jesus Manuelek.

Hasiera-hasieratik bete ziren lonjan atondutako 128 saltokiak, eta hala jarraitzen dute oraindik ere. Kooperatibista lez, saltzaile bakoitzak kuota bat eman behar du, eta hala, zenbait gastu elkarregaz ordaintzen dute: argia, ura, segurtasuna... “*Gero, norberak egin behar dio aurre gainerako gastuei* -espikatu du Juanek, presidenteak alegia-, *autonomoak direla, ardurua zibil aseguru dela... Lehen, 20 ogerleko ipini eta bazeneukan 10 metroko leku bat*”.



Algortako merkatuko giroa zapatu goiz batean. Behean eskuinean, Juan, azoka kudeatzen duen elkartearen presidentea



Esan bezala, ijitoak eta egaxuak dagoz merkatuan. Proporzioa, Jesus Manueken arabera, “*70-30*” izango da lehenengoan alde. Antzina ez zen horrela izaten. Ijitoak ziren denak, edo ia. “*Kaleko merkatua ijitoek asmatu zuten*”, dio Juanek. Oraingo bizikidetzaren lekuko, arduradunen artean ere

jaten, esaterako, geuk egiten dugulako garruaioa. Horrela saldu dezakegu merkeago”. Hala ere, lehenengo ohitura batzuk gainbehera doaz. Garai batean gehiago eztabaidatzen zen prezioen gainean orain baino. Horretan ere, ijitoak dira nagusi egaxuen aurrean. Eta jeneralean merkeago saltzen dute.

«Garai batean gehiago eztabaidatzen zen prezioen gainean orain baino»

denetarik dago. Juan ijitoa da; Jesus Manuel, egaxua.

Merke saltzeko, merke erosi behar. “*Guk fabrikari erosten diogu zuzenean* -dio Juanek- *edo denda ixteko zorian dagoenari. Beti merkeago. Gainera, garraiolariak ez du gugandik*

Jendez lepo

Saltzaileak leku askotakoak dira: Algorta, Ezkerraldea... Gehienak, hala ere, Bilbon bizi dira. Eguaztenetan eta zapatuetan Algortan egoten diren bezala, gainerako egunetan beste merkatu batzuetara joaten

dira. Hauxe dute ogibidea, eta Algortan behintzat ez doakie txarto. Askotan ibiltzea ere gatxa izaten da merkatuak dauzkan 3.300etik gora metro koadroetan zehar, hainbeste dira-eta erosteko zeozer merkearen bila doazenak. Oinetakoak eta jantziak dira salgaiarik ugariak, baina besterik ere topa daiteke: alfonbrak, jostailuak, musika...

Bizikidetzeta ona dute, bai elkarregaz, bai bezeroakaz -“*ez dugu arrazismorik igartzen, bai eurek bai guk elkarren beharra dugu*”-, bai inguruko bizilagun eta dendariakaz. “*Merkeago salduta kalte egiten dugula?* - itaundu du Juanek- *Eroski bezalako merkataritza gune handiek ere bai. Guk, behintzat, ez dugu kexarik jaso*”. m



AREETA, 1997

Areetako arrain-saltzailea

Jon Bernardes

Gaur egungo bizimodu zoroak eta ohitura berriek lanbide askoren gainbehera ekarri dute; esaterako, kaleko arrain-saltzaileena. Argazkian Primi Santos duzue, luzaroan Areetako kaleetan itsasoko bere jeneroa saltzen ibiltakoa.

[berbetan]

Konrado Mugertza aspaldidanik getxoartzatutako eibartarra da. Irakaskuntza du berezko ogibidea -natur zientzia irakaslea da Aixerrota institutuan, hain zuzen ere-, baina utzita dauka EAEko azken hauteskondeez geroztik. Denbora horretan, Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailean jardun du, Europako Gaietarako Aholkulari lehenengo, eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendari ondoren. Gainera, esku artean daukazuen aldizkari honen historian ere eduki du zeresanik; UKren aitzindaria izan zen Bizarra Lepoan-en hasierako pausak zuzentzen lagundu zuenetako bat da Mugertza, eta honenbestez derrigorrezkoa izan da horretaz itaun bat egitea. Hori akaburako utzi dugu, hala ere. Berbaldi hau egin genuen egunean bertan, *Hizkuntzak eta immigrazioa* kongresuko sarrera-hitzaldia egin zuen Mugertzak, eta horretaz galdetzen hasi dugu elkarrizketa.

Konrado Mugertza

Hezkuntza portu berrira gidatzen

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—“Hizkuntzak eta immigrazioa” kongresuaren aurkezpenean egon zara. Zein da horren helburua?

—Kultura Sailak antolatu du hori, baina guk, Hezkuntza Sailean, badugu geure plantemandua noski. Helburua, alde batek, erronka honen inguruan gure gizartean sentsibilizazioa lortzea da eta, bestetik, bitartekoak jartzea etorkinen integrazioa benetan modu egokian gerta dadin; kultur arteko harremanak sustatuz, esango genuke. Horrek esan nahi du ez dela asimilazioa izan behar, baizik eta etorkinen jatorrizko kultura, hizkuntza eta abar kontuan izan behar ditugula, benetan oso inportantea delako horri eustea.

—Gaztelaniaren ikuspegitik aztertzen da hori, euskararenetik, bienetatik?

—Kongresuan esan nahi duzu?

—Kongresuan eta oro har...

—Nik nahiago nuke neure esparrutik, hezkuntzatik, hitz egin. Edonola ere, eta gaur ere Hizkuntza Politika Sailburuor-

deak adierazi duenez, oso kontuan izan behar dugu etorkinak datozenean ez dakitela nora datozen. Uste dute Espainiara datozela, eta Euskal Herriaren berri gutxi jakiten dute. Inportantea da zein herritara datozen jakinaraztea, herri honek dituen berezitasunak, kultura... ezagutaraztea, jakin dezaten non integratu behar duten. EAEn bi hizkuntza ofizial ditugu eta Hezkuntza Sailean diogu derrigorrez-

“Ez du ematen A ereduak, berez, gazte bat euskalduntzeko balio duenik”

ko eskolaldia amaitzean bi hizkuntzak erabili behar dituztela. Ildo horretan aurkeztu da gaurkoa ere, kontuan izanik gainera euskara eta gaztelania oso egoera desberdinean daudela. Gaztelania, oro har, erraz eskuratzen da eta euskara, aldiz, gutxiengoaren hizkuntza da bere herrian, eta askoz ere zailagoa da eskuratzea. Beraz, gure ahalegin nagusiak euskararen alde ari

dira bideratzen batez ere, etorkinak euskaldundu daitezten. Baina bitartekoak jarritz gaztelania ere ikas dezaten.

—Badakigu ikasle askok ez dutela eskola amaitzen euskaraz jakinda, etorkinak zein etorkin ez direnak. Etorkinen kasuan areago da hori, ala berdin?

—Etorkin gehienak Hegoamerikatik heltzen ari dira orain. Horrek esan nahi du gaztelania badakartela, ama hizkuntza gaz-

telania dutela, eta berez joera izaten dute A ereduan matrikulatzeko. Guk pentsatzen dugu horrek ez duela bermatzen euskaraz jabetzea. Noski, gauza bera esan dezakegu bertokoak diren ikasleez. Aitortu beharra dago ez duela ematen A ereduak, berez, gazte bat euskalduntzeko balio dezakeenik. Hor daukagu konpondu beharreko arazo bat, baina herri honek



[KonradoMugertza]

sentiberatasun desberdinak ditu, eta tirabirak, eta legeak... Nik espero dut, beste gehiengo politiko batzuekin, beste adostasun maila batekin, lortu beharko genukeela benetan jarri dugun helburua, alegia, ikasle batek, edozeinek, etorkina edo bertakoa, hamasei urterekin derrigorrezko eskolaldia amaitzen duenean, bi hizkuntza ofizialak behintzat ondo erabiltzea. Hori lortzeko eredu batzuek ez dute balio? Jarri beharko ditugu bitartekoak, lege apro-

“Argi dago hezkuntza eskumen oinarritzkoenak estatuaren esku daudela”

sak egin beharko ditugu, eta horretarako gure arteko adostasuna behar da.

—Argi ematen du helburu hori betetzeko A eredia “ikutu” beharko dela...

—Bai, A eredia “ikutu” egin beharko da, eta legegintzaldi honetan ere egon dira proposamenak. Ez dut uste A eredia euskararen aldetik indartzeko egin ditugun proposamenek asko konponduko dutenik, baina lehen esan dudan moduan, arlo horretan pausu bat eman behar dugunean gutxieneko adostasun mailak behar ditugu; une honetan, eta orain arte behintzat, hori ez da posible izan. Hemen oso iritzi desberdinak egon daitezke, A ereduaren defendatzaile sutsuak ere badaude, familia

“Euskal kurrikulumak ez du garapen nahikoa izan urte hauetan”

batzuek ere aukeratu egiten dute A eredia, -askok oraindik, esango nuke-, eta eskubide hori dute. Garbi dago gazte guztiek benetan aukera berdina izatea lortu behar dugula, etorkizunean bizitzari aurre egin diezaioten. Horretarako bi hizkuntzak menperatu behar dituzte, baita atzerriko hizkuntza bat ere, eta sistema asko hobetu beharra dago hori lortze aldera. Baina sentiberatasun desberdin horiek guztiak ere kudeatu beharra dago. Uste dut gure herriak beste lasaitasun bat har-

tuko balu gai izango ginatkeela halako adostasuna lortzeko.

—Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaria zara. Hezkuntza berriztatzeko beharra dago, beraz?

—Dena dago berriztatu beharra, eta hezkuntza ere bai. Berriztatea bizirik egotea da. Gauza asko aldatzen ari dira, zer esanik ez aipatu ditugun bi esparru gutxienez: etorkinak eta hizkuntza. Etorkinei dago kienez, begira gure herrietako giza paisajea

nola aldatu den. Hizkuntzen aldetik ere, hasiera batean elebitasuna genuen ortzimugan, eta orain eleaniztasuna dugu. Bestalde, premia berezietan eman behar ditugun erantzuna asko hobetu beharra dago oraindik. Hezkuntza-sistemaren eta irakaskuntza prozesuaren kalitatea etengabe hobetu behar da, Europan gaudenez Europako dimentsioa sartu dugu gure programa berrietan, euskal dimentsioa ere bai... Azken batez, arlo hauetan duela hamar edo hogeitau urte beste egoera bat genuen, eta honek behartu egiten gaitu egokitzea.

—Azken urteetan Espainia mailako hezkuntza legeak aldatu dira. Erreforma,

kontraerreforma... nahaste handia egon da. Zuek zelan hartzen duzue hori, eragiten dizue?

—Eragingo ez du ba! Horixe nahi genuke batzuek, hainbeste ez eragitea, baina hezkuntza eskumen batzuk, oinarritzkoak, estatuaren eskuetan daude eta garbi dago horrek nola eragiten digun. Hori ukatzerik ez dago. Baina gure hezkuntza sistemak baditu oso bereizgarri nabarmenak, eta gure esku nahiko genuke eskuduntza gehiago. Edonola, euskal kurrikulumak

lantzen ari gara, kurrikulumaren euskal dimentsioa lantzen ari gara...

—Euskal kurrikulumak aipatu duzu. Zer ezaugarri eduki beharko lituzke horrek, orain artekoak eduki ez duenik?

—Gauza bat dago argi: badira urte mordotxo bat hezkuntzan eskumenak ditugula, baina uste dugu gure kurrikulumak ez duela garapen nahikoa izan. Une honetan, gure ildo nagusietako bat euskal dimentsioa da. Zer nahi dugu horren bitartez? Azken batez, euskal hezkuntza sistemak bere herriaz, bere kulturaz, eta mundua ikusteko moduz egiten duen proposamena eraiki. Hori alde batetik. Bestetik, lantzen ari gara, ikastolekin eta beste erakunde batzuekin ere, derrigorrezko eskolaldian eskolak zer eskaini behar duen. Horri deitzen diogu euskal kurrikulumak.

—Euskal dimentsio hori, gaur egun ez dago oso zabaldua irakaskuntzan, ezta?

—Esango nuke ezetz, ez dagoela nahikoa zabaldua. Azken batez, irakasleek ere zer prestakuntza izan dute horren inguruan? Euskal Herriko historia ematen bada, hori euskal dimentsioz beteta dago, baina munduko historia irakastea, edo gizarte gaiak... nola joratu euskal gaiak? Ikasle batek derrigorrezko eskolaldia amaitzen duenean, edo edozein unetan, zer ezagupide dauka bere herriaz, bere kulturaz? Eztabaidan hasi behar dugu, eta oso eztabaida aberasgarria da: zer ulertzen dugun euskal dimentsiotzat, zer den “euskal” hori. Eztabaida sakona da, ideologiarekin oso katramilatua dagoena.

—Hamar urte dira aurten Bizarra Lepoan sortu zela. Zu buru-belarri ibili zinen hor...


—Hala izan zen, bai, eta benetan harro sentitzen naiz eta atseginez gogoratzen dut garai hori. Ikusten dudanean gaur egun nola sendotu den proiektua, oso pozgarria suertatzen zait. Ez nabil bertan aspalditik, baina hasieran hazi hori jarri izanak eta taldetxo batean lan egin izanak benetako poztasuna ematen dit. m

888 TXISTE

Kike Amorriz

eskaerak katalogoaren eskaera orria
943 37 15 45 • denda@argia.com
Ohiko salmenta puntuetan

ARGIA
LIBURUAK



Skaterrak Uribe Kostan

Gauza jakina da gure eskualdea skater paregabeen harrobia dela. Paregabea ere bada Carlos Terreros argazkilariaren lana. Zalantza barik kirol hau inork baino hobeto erretratatu du Carlosek gurean azken urteotan. Hementxe doaz bere lan bikainaren ale batzuk.

Argazkiak: **Carlos Terreros**

BORJA SAEZ, INVERT. LA KANTERA.



DAVID RAMOS, SWITCH CROOK. SAN NIKOLAS.



ALFONSO FERNANDEZ, FRONT SIDE 50-50. ARRIGUNAGA.



DAVID RAMOS, OLLIE. ALGORTA.



BORJA SAEZ, PIPING. ERANDIO.



ALAIN GOIKOETXEA, TRANSFER. APRILUZE.



JAVIER "KOKO" GONZALEZ, LAYBACK ROLL OUT. ARRIGUNAGA.



TXUS DOMINGUEZ, LAYBACK GRIND. AREETA.



JAVIER MENDIZABAL, WALL RIDE. EDIFICIO GOBELA (LEIOA)



DOWN HILL, SUSTATXA.



TATO NEGRETE, FRONT SIDE GRIND. LA KANTERA.



GAIZKA PEREDA, MIYAGI FLIP. AZKORRI.



DANIEL DE MEIJ, 360 FLIP. PORTU ZAHARRA.



TXUS DOMINGUEZ, ONE FOOT CARVE. GORLIZ.

	RENAULT ocasión
<h3>IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON</h3>	
<p>"0 Km" dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. RENAULTen bermarekin. Getxo I Institutuaren ondoan</p>	
<p>RENAULT BILBO BERRI Bukero/k.z/g. - ALGORTA Tel.: 94 410 60 01 Jon Arrosalde, 20 - EREUSTO Tel.: 94 448 39 00</p>	



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

zineeskola

Oskar Fernandez

Zinema eta sariak

Zinemaren inguruan ekintza asko antolatzen dira eta haien artean gehien ezagutzen direnak jaialdiak eta sarien banaketak dira. Sariak entzutetsuenak eta ezagunenak Ameriketako Estatu Batuetan banatzen dituzten Oscar sariak dira. Baina horietatik aparte estatu bakoitzak bere Zine Akademiaren bidez bertako sariak banatzen ditu: Cesar, Frantzian; Goya, Espainako estatuan; eta abar. Sari horiek guztiak helburu bakarra dute: filmik onenak goraiatzeko, baina onespenez honekin batera saritutako filmei bultzada handi eta nabarmena ematen zaie, jendea zine-aretoetara erakartzeko asmoz. Beraz, ez da oso ikerketa zorrotza egin behar sarien eta zinemako sarreraren artean lotura handia eta nabarmena dagoela antzemateko. Esandakoa egia borobila da eta film bat estrenaturik egon arren, sariturik baldin badago egoera berri hau aprobetxatuz filma berrestrenatzen da. Hau kontuan harturik, geure buruari galdetu diezaiokegu ia sarien atzean kalitatea eta ezaugarri artistikoak baino ez diren aztertzen eta neurtzen, edo zerbaite gehiago ezkutatuturik dagoen. Zalantzarik gabe zerbaite gehiago dago eta ez dago hain ezkutatuturik. Ekizleek komunikabideen bidez jenedearen eta Akademiaren pertsonengan ere eragin handia daukate, aurretik ipinitako diruari ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Eta beste aldetik, film batzuk sistemarentzako oso interesgarriak eta baliotsuak dira. Hau ikusiz gero sariak daukaten garrantzia ondo baloratzeko haien atzean nortzuk dabilen jakin beharko genuke. Gauza batzuk argi daude eta ukatu ezinak dira. Esaterako, hainbat eta hainbat film izugarri onak edota zuzendari ospetsu eta handiak ez dira sekula ere sariturik izan, Oscar batekin behintzat ez. Haien artean, eta adibide gisa, Stanley Kubrick maisua aipa dezakegu. 4

Agur eta ongietorri

Areetako **Gran Cinemak** betiko amatatu du proiektagailua, **lekukoa Kultur Leioak** dauka

Gesc Gay zuzendariaren *En la ciudad* filmak "The End" pantailaratzeagaz batera, Areetako Gran Cinemak agur esan zion 80 urtetik gorako historiari. Urtarrilaren 27an eskaini zuen Areetako zinema aretoak azkenengo pelikula, azkena. Zazpigarren arteak dagoeneko ez dauka lekuri han, edo ez diote lekuri utzi. Orain dela hiru urte Gurea zinema izan zen betiko joan zena, eta auzokideen istorioek beteko dute laster haren lekua. Hala, izerdiak, fitness-ak, aerobic-ak... ordezkatuko dute Gran Cinema. "The End" haren ostean, betiko ixiotu dira argiak. Batzuen alde mallo bi.

Alabaina, eskualdean badago orain dela gutxi ateak zabaltzen dituen zinema-aretoa: Kultur Leioa. Bost bat hilabete

«Haurrentzako zinea, zine komertziala eta zineforuma Kultur Leioako aretoan»

daroz Leioako kultur etxeko zinema eskaintzak, eta 250 bat ikuslerentzako lekua dauka. Hiru motatako zinea eskaintzen du: komertziala, haurrei zuzendutakoa eta Perseo elkartearen laguntzaz zineforuma. Film komertzialak zapatu, domeka eta astelehenetan ematen dituzte eta sarrerak 4



Argazkian, Kultur Leioa

euro balio du (astelehenak ikuslearen egunak dira, sarrerak 3 euro balio du). Haur zinema domeka goiz eta arratsaldeetan antolatzen dute, sarrerak 3 euroan, eta hilean behin-edo euskarazko film bat jartzen dute. Azkenik, zineforuman pelikula ez-komertzial eta apartak ematen dituzte, eta normalean hil bakoitzeko zikloa zuzendari, aktore, zine mota... bati eskaintzen diote. Otsailean, musikalak dira nagusi; martxoan, ostera, Marlon Brandonen zikloa. Sarrerak 2 euro balio du. Batzuk betiko doaz, ia besteak betiko geratzen diren. Besteen alde, ongietorri! m

Ez galdu > "Veronica Guerin"

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: otsailak 23, eguaztena • Ordua: 19:30 • Zine Kluba



Egiazko istorio batean oinarritzen da film hau, Veronica Guerin-en bizitza profesionalen hain zuzen ere. Emakume irlandar hau oso kazetari ospetsua izan zen bere garaian eta *Sunday Independent* egunkarian egiten zuen lan. Emakume argi, indartsu eta kementsu honek helburu argia zuen: Dublingo droga mafiaren gaiztakeriak lau haizetara ezagutzera ematea. Bere ikerketen bidez puzzle korapilatsu, latz eta arriskutsu hura aurrera eroan zuen. Bere bizitza ere amesgaizto bihurtu zitzaion, denetarik pairatu behar izan zuen-eta: mehatxuak, jipoiak, lankideen inbidiak, politikoen kritikak... Hala ere, bere lanari esker mafiosoek giltzapeturik amaitu zuten, baina oso garestia suertatu zen Veronica Guerin hil egin zuten-eta. Hau gertatu ostean Irlandako Gobernuak Konstituzio bera aldatu egin zuen kriminalei aurre egiteko.

Ekin taldearen lehenengoa

Kalean dago metal talde algortarraren **Zenbat urte** diskoa



Argazkian, Ekin taldeko kideak

Orain dela 5 urte hartu zuen musikaren uhina boskote algortarrak, izen kementsua eman zioten taldeari eta baliteke izen horrek emandako indarrari esker, ekinaren ekinez, lehenengo diskoa plazaratu dute oraintxu: *Zenbat urte*. Pablo Holgera taldeko gitarrak azaldu legez, "sortu genuen lehenengo kanta *"Zenbat urte" izan zen eta horregatik diskoari izen berdina ipintzea erabaki dugu*". Hamar abestik osatzen dute diskoa eta zuzenean grabatutako hiru bat abestiren bideo-klipa eta argazki batzuk ere batzen ditu. Kantu gehienak euskaraz dira, 2 bakarrik dira gaztelaniaz.

Metal musika egiten dute algortarrek, eta *Etsaiak* edota *Habeas Corpus* taldeen eragina erraz antzematen da euren abestietan. Hurrengo musikari gazteek osatzen dute taldea: Urtzi Saez (ahotsa), Pablo Holgera (gitarra eta koroak), Jon Mendez (gitarra eta koroak), Kepa Baesleira (bateria) eta Borja Holgera (baxua). Diskoa pasadan urteko maiatza aldean grabatu zuten Grabasonic estudioetan eta DDT-ek banatuko du. Hala ere, Ekinekoek Algortako hainbat tabernatan ere ipini dute diskoa salgai 5 euroan. m

Harremanetarako: 653 738 676

diskoak

Lifeblood
Manic Street Preaches
Sorry




Galesko hirukoteak 80ko popari begiratu dio, eta zelako diskoa atera zaien! Zazpigarren honetan, Descartes, Orwell edo Richard Nixon aldarrikatzeaz gain, orain dela hamarkada biko U2 eta elektro-popa ekartzen dizkigute gogora. Pop sofistikatua ematen du (eta horrela da neurri batean), baina ez da igartzen: abestiak laburrak, berehalakoak eta erraz barnatzen direnetakoak dira.

Performance
Astrud
Sinnamon



Bikote honek bizitzaz daukan ikuspegi xebea erakusten digu bere diskoetan. Honako hau aurreko biak baino zuzenagoa eta akustikoagoa da, baina batez ere taldearen bertuteetan oinarritzen da: Manolo Martinez-en ahots bikaina, melodia itsas-korak eta absurdotik hurbil dagoen umorea. Diskoko kantarik onenetariko bat (*Todo nos parece una mierda*) ereserki bihurtu beharko litzateke.

Nafarroako kantu...
Hiru Truku
Metak



Bizkaiko abesti tradizionalak ardatz zeukaten disko biren ostean, Bixente Martinezek, Ruper Ordorikak eta Joseba Tapiak osatzen duten hirukotea Nafarroari begira ipini da, eta hango kantutegi zaharren eguneratzea dakarkigu hirugarren lan honetan. Azkarateko Katarain estudioetan grabatu dute disko 13 abestiak, eta horrela aspaldiko euskal kantak berreskuratzen jarraitzen dute.

Entzun! > Euskal taldeen bideo-klipak



Entzun! euskarazko musika aldizkariak 18 euskal musikariren bideoak batzen dituen DVDa plazaratu du. Entzun!-en urteko harpidetzagaz batera jasoko du

harpidedunak DVDa, hau da, 15 euroren truke musika aldizkari euskaldunaren 6 ale eta "Euskal bideo-klipen bilduma bat" DVDa jasoko ditu etxean. Askotan lortzeko hain gaxak diren euskal taldeen bideo-klipak batu dituzte beraz Entzun!-ekoek eta, barbarako, hurrengo taldeen bideoak daude: Gari, Ruper Ordorika, Doctor Deseo, Afrika, Atom Rhumba, Inoren Ero Ni, Señor No, Su Ta Gar, Flyin' Freak, Kuraia eta Neubat.

Informazio gehiago: www.entzun.com

Zaharregia... > diskorik onenetakoa

Zaharregia, txikiagia agian poesia diskoa urteko onenen artean aukeratu dute New York-eko Bowery Poetry Clubeko kideek. 2004ko poesia disko onenen zerrendako 6. postua eman diote Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda eta Mikel Valverde egindako lanari. Boskoteak pasadan urtean AEBetan egindako bira arrakastatsuen oihartzunetako bat besterik ez da izendapen hau. Kirmen Uriberen poemek, Urdangarin, Rueda eta Mendizabalen musikak eta Valderderen marrazkiek osatzen dute ikuskizuna, eta horren ondorioz grabatu duten diskoa ere.



hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

dirulaguntzak

lagundu nahi baduzu
hauxe da gure kontua

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua
48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

[liburuak]

Harpidetza bateratua

Euskal literaturako aldizkariak elkarlanerako batu dira eta harpidetza bakarra eskaini dute

Aldizkari honek orri bateko lekua egiten dio literaturari hamabostero-hamabostero, alabaina badira euren orri den-denak literaturaz janzten dituzten aldizkariak, besteak beste: *Egan, Hegats, Behinola, Idatz&Mintz, Maiatz* edota *Beterriko Liburua*.

Orain dela gutxi goian aipatutako aldizkariok batu egin dira, elkarregaz behar egiteko eta literatura bultzatzeko asmoagaz. Elkarlanaren lehenengo emaitza irakurleei harpidetza bateratua egiteko aukera ematea izan da, literatur aldizkari horiek guztiak etxean jasotzeko harpidetza bakarra egiteko eskaintza, alegia. Gauzak horrela, harpidedunek urtean 13 aldizkari jasoko dituzte etxean:

«Hegats, Idatz&Mintz, Maiatz, Egan, Behinola, Beterriko Liburua...»

Beterriko Liburuaren 4 aleak, *Behinolaren* ale bat urtekaria delako, eta *Egan, Hegats, Idatz&Mintz* eta *Maiatzen* bina ale. Harpidetzak 50 euroko prezioa dauka eta trukean literatura sortuberria, haur eta gazteei zuzendutakoa, tradiziokoa, kritika artikulua, proiektuak... eta abarren berri jasoko dute. Horrez gain, eta Pako Aristik literatur aldizkariaren bateratze aurkezpen ekitaldian esan zuen legez: *“literatur aldizkariak behar askori erant-*



Hegats aldizkariaren azala

tzuten dion sare bat osatzen dute, eta Euskal Herrikoak oso ezberdinak dira, era askotakoak... Gure lurraldeen ispilu dira neurri batean, idazle gazteek bezala konsagratuak ere parte hartzen dute, eta informazio, esperientzia zein proposamen ezberdinen zirkulazioa errazten dute, bai sortzaileen artean, baita literaturzaleen artean ere”. Azken batean, euskal letren errepublikaren nondik norakoan eta kanpoko korrente berrien berriemaileak dira aldizkariok. ^m

Harpidetza egiteko: www.idazleak.org

liburuak



Akordatzen
Joseba Sarrionandia
Txalaparta

Hainbeste urtetan bere etxetik kanpo bizitzea egokitu zaion idazle durangarrak memoria ariketa egin du eta atzera begira ipini zaigu. Umetako jolasak, aitona anaia itsua, kantak, filmak, gutunak, kartzela eta beste hamaika oroitzapen ekarri ditu gogora Sarrionandiak, betiere poesia ukituagaz.



Hautsi da katea
Toti M. de Lezea
Erein

Saran jaiotako sasiko seme bat dugu protagonista, 25 urteren buruan jaioterra itzuliko dena prokuradore bihurtuta. Bertako neska batez topo egiten duenean, hariak nahasten hasiko dira. Eleberri hau Frantziako Iraultzan dago giroa, eta Jean Ithurberden istorio korapilatsua kontatzen digu.

[kirola]

Bizkerre futbol taldea

Klubak 25 urte beteko ditu aurten eta **emakumezko lau talde** dauzka



Argazkiotan, aurten lehiatzen dabilten emakumezkoen talde bi

Bizkerre futbol taldeak aurten betetzen ditu 25 urte. Gaur egun mutil-gizonezkoen 6 taldek eta neskato-emakumezkoen 4 taldek dihartute Bizkerrearen izenean.

1980tik Sopolako eta Ereagako hondartza-txapelketetan jardun bazuen ere, emakumezkoen taldea ez zen 1984ra arte federatu, eta klubeko zuzendaritza kide Petxak azaldu digun legez *“Luis Mari Sobrevilla presidente eta Maribel Ardanzak egindako lan handiari esker lortu genuen hori”*. Emakumezkoen taldearen bide “ofizialak” beraz ez dauzka 25 urte, baina bidetako harriak kontuan hartuta, emakumezkoen ibilbideak zorion ospakizun ozenago bat merezi duela gaude. 1985etik 1992ra Bizkaiko txapelkunorde izan ziren, hurrengo bi urteetan Euskadiko kopako txapelkunordeak, 92-93 denboraldian Bizkaiko liga irabazi zuten baina baliabide ekonomiko faltagatik ezin izan ziren liga nazionalera igo. Hurrengo urtean, oster, nazionalera igotzea lortu zuten Bizkerreko emakumezkoek. 1996ean Bizkenezkak taldea sortu zuten, talde batek liga nazionalen jardun zezan, eta besteak Bizkaiko ligan. Gaur, zoritxarrez, bataz zein besteak erregionalean dihartute. Baina 3. postuan daude ligan mo-

mentuz, eta nork daki aurtengo hau urte borobila izan liteke eurentzako.

Bestalde, harrobira begira, Bizkerrek neska-toen beste bi talde dauzka: haurrena eta kimuena. Harrobiari dagokionez, Bizkerreko jokalaririk ohi asko dabilta gaur egun Athleticen: Nerea Onaindia, Leire Zabala, Lexuri Angulo, Txibi... Ezagunak dira Bizkerren jardun izan duten beste izen batzuk ere: Miren Dobaran, Unai Elorriaga, Gontzal Suances...

Amaitzeko, 25. urteurrena ospatzeko jokalaririk guztien erretratuagaz egutegia osatu dute Bizkerrekoek, eta Petxak azaldu legez maiatzean edo ekainean emakumezkoen torneo bat prestatzen dabilta: Athletic, Bizkaiko selekzioa eta jokalaririk ohiak gonbidatu dituzte txapelketarako, eta zelan ez, Bizkerrekoek ere jardungo dute. Argazki eta garaikurren erakusketa ere antolatuko dute. Zorionak eta zorte on! ^m



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizol moda

350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacofris S.L.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZU-NA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN

& 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



T: 430

Sarrikobaso 15

SPL BAR ESPUELA
ITURRIBIDE

- PINTXO 6000-6000AK
- OSTEGUN KULTURALAK
- ASTEBURUTAN MARTXOLA
- TELEFONOA: 944150565
- ITXURALDATURIK HATOR.
- ELKARTOKIA ETA GIRO JATORRA

Igor Elortza > bertsolaria

“Bertso txapelketa kontradikzinoa da, bertsoa epaitu ezin dan gauza bat da-eta”



San Blas eguneko ospakizunetan Barrikan egon zen Igor Elortza Jon Maiagaz

Igor Elortza durangarrak laugarrenez irabazi zuen iaz Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Lau txapelak, gainera, bata bestearen atzetik eroan ditu 29 urteko mutil honek. Ikastolan hasi zen bertsoan, hamaika urte zeuzkala; handik bertso eskolara, gero eskola arteko txapelketetara eta, “apurka-apurka”, plazetara. San Blas egunean Barrikakoan egon zen, hain zuzen ere, eta hantxe egin genuen berba beragaz.

—Laugarrenez txapeldun. Zer dinotsu Unai Iturriaga lagun minak?

—Gauza handirik ez horretaz, egia esan. Bata eta bestea ahalik eta ondoen egiten aha-legintzen gara eta irabazi ezkerro hobeto, baina inoiz ez dago problemarik sortu horrek eta orain bere ez. Tarteka txisteren batzuk-edo egoten dira, baina...

—Futboleant beti esaten da epaileak joera eukiten dauela boteretsuen alde jokatzeko. Bertsolarien kasuan, eskuzabalago epaitzen da Elortza baten, edo Iturriaga baten, edo

aurretik txapela mordoa irabazi dauenaren bertsoa?

—Apur bat kontradikzinoa da bertso txapelketa, danok dakigu-eta epaitu ezin leikeen gauza batetaz gabiltzala berbetan, baina hortik aurrera nik epaileen fede onean sinisten dot. Egia da batetik gustuak eragin eikeela, eta bestetik plaza gehiago eginda dekonak, txapelketetan kantaten ohituta dagoenak, seguridade gehiago erakusten dauala. Uste dot horrek epaileengan eragingo dauala, baina modu inkonzientean edo...

—Zenbat saio egiten dozu zuk astean?

—Bat edo bi. Azken lauspabost urteetan, 85-90 egin dodaz urte osoan zehar. Baina denporaldiaren arabera izaten da, uda partean asko biderkatzen doa, eta beste hile batzuk lasaiagoak dira; zezeila, esaterako, lasai samarra izaten da.

—Urtean 90 inguru egitea batez beste lau egunean behin bat egitea da. Ez dozu igarten inoiz iridumen falta, edo burua nekatuta bertso berriak asmatzeko?

—Bertsotan gehien egin dodan urtean 114 plaza egin nebazan, eta urte horretan bai sen-

«Bertsolaritza bizibide umil samarra izan leike, ibili ezkerro. Ez da aberastekoa»

titu neban hori. Irudimen falta baino, nekea, gauzak errepikatzen nabilen sentsazioa. Baina oraingo kopuruetan gustura nabil.

—90 saio urtean. Bertsolaritza lanbidea da? Zuk badaukazu bestela beste ogibiderik, pentsetan dot...

—Lan finkorik ez dekot eta gehienbat bertsolaritza bizi naz orain. Gero, beste lan batzuk osatzen dot soldata bat izango litzatekeena; itzulpenak, elkarrizketak, kolaborazioak komunikabideetan... Lanbidea? Bizibide umil samarra izan leike, ibili ezkerro. Aberastu gure dabenari ez neuskio gomen-datuko hau ofizio lez.

—ALBE ezagutuko dozu jakina. Zer deritxazu euren lanari?

—Begitantzen jat bertsozaleatasuna sustraitu dan lekua dala. Urte batzutan lan hadia egin da hazia ereiten, eta gerora bere lan ona egiten segidu da. Orain inguru erreferentziala da bertso munduan, eta ez bakarrik Fredi edo Xabi, esaterako, punta samarrean dabil-tzalako; gaztetxoak bere ezagutzen dodaz eta badagoz ondo datozenak. m

Esakere > “Asto yon eta mando etorri”



Biajen, bidaien, ibiltan danak beti zeozer ikisten daule pentsa ixeten da. Lehen, gaur egun dekuzen komunikazio eta garraiobidek ez egozenen, ez eun edozeinek aukere aukiten biajen ibilteko, eta ibiltan zanak beti ekarten eun buru apur bet hobeto "yantzite", gauza barri asko ikuste eta ikiste etorten zan. Ai ene, baia batzuten ez da holan pasaten, eta biajeru buru aldetik apur bet gogorra bada, etorko da yon zan lez bardin, edo antzeko: asto lez yoten direzen asko... mando lez datoz.

Leku askotan entzuten da esakera hau, eta esaterako Iñaki Gaminden "Urdulizeko berbak eta bizimodu" librun topako dozue.

Gureberbakere53

Esakera zahar batzuk

Testua: Xabi Bilbao

Egunon, Jangoikok emon! Kristautasune aspaldi etorri zan Euskal Herrire, eta euskera duztiten ugari direz kristautasuneko ikuspegitik egiñeko esaldik, Jaungoiko, Santuk eta abar aitetuten daudezenak. Inauteriteko yaiek eta zorokerik pasa barri doguz, eta orain irakurle kristauk ondo jakingo dozuen lez, Garizumako sasoi sartu gara: sasoi ona gure eskualdeko eta herrialdeko berbakera kristautasunegaz zerikusi dauken esakera batzuk ikusteko. Azkuen Euskalerraren Yakintza-n topako dozuez hemen datozenak eta gehiago.

- Gizonak ekin, da Jaungoikoak egin (Markina).
- Jaungoikoa emonzalea, gizona arrainzalea (Ondarru).
- Jaungoikoari erreguz, beharrari mailuz (B).
- Munara eroten dau Jaungoikoak, baiña munan behera eztau botaten (Lekeitio).
- Jaungoikoa ezta abazkor, bai berankor (B).
- San Blas ta Santa Agedako feriak, mutil-neskatxen ezaupideak (Zeanuri).
- Santu eginagatik norberen burua, santu ogi-yalea ezta segurua (Derio).
- Kortan daukagu txahal bat, hazurra ta azala. Aita San Antoniok loditu dagiala (Amorebieta).
- San Jurgi, artoak ereiteko goizegi; San Markos, artoak ereinda balegoz (Elorrio).
- San Sebastian hotza, neguaren bihotza (Arratia).
- San Martin, beharrak behar eragin (Elorrio).

Akabateko, hemen doa esakera bat ondo erakusten daune noz akordaten garan kristauk eta ez kristauk goiko edo urruneko laguntziogaz:

- “San Antonio, San Antonio” txarria gaixo danean. San Antonio eztau inok esaten odolostea yaten danean (Lekeitio). Hori bai egi santu!

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARBI



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Txipiroiak

Hasteko patatak zuritu, laukitan zatitu eta gatza eta oliba olio apur batez egosi. Bestetik, zartaginean oliba oliotan berakatza ondo txikituta eta pipermin ale pare bat sutan ipiniko ditugu. Berakatza urreztatzen denean egositako patatak, ardao zuria gustura, ozpin apur bat eta piperrautsa gehitu. Eragin guztia, apurtxu bat, saltsa loditu arte. Bestetik, plantxan edota zartaginean txipiroiak egingo ditugu. Eginda daudenean patataz nahastu eta eduki guztia sutan bost minutuz. Platera apaintzeko perrexil birrindua bota. On egin! ^m

osagaiak

kilo bat txipiroi • lau patata handi • berakatza • pipermin pare bat • piperrautsa basobete ardao zuri • ozpin apur bat • gatza • oliba olio • perrexila



itsaso arana / jolastoki-koa

Mahasgintza

Mahatsa lantzeko era honen atzean muturreko ideologia oso bat dago eta honen sortzailea Rudolf Steiner izan zen. Biodinamika mahasgintza edo bitikultura organikoa da eta, batez ere, lur sailen fermentazioan jartzen du arreta. Bestetik, ardaoari dimentsio berri bat ematen dio, aurrekari kosmikoak kontuan hartzen dituelako. Ilargia eta planeten kokapenen eragina aldarrikatzen du teoria honek, bai mahasgintzan bai ardao egiteko orduan.

Biodinamikak lurren fertilizaziorako osagai kimiko guztiak baztertzen ditu eta hauen ordeztasun begetaleko estraktuak erabiltzearen aldekoa da. Hala ere, kobrea sulfato erabiltzea onartzen dute.

Mahasgintza era hau Frantziako eskualde batzuetan egiten da, batez ere, Domaine Leroy, Domaine Huet eta Domaine Leflaive finketan. ^m



Eleizalde taberna

Beharginentzako jantokia Erromon



Argazkian, Aitor Landea

Aspaldiko taberna petoen kutsua dario San Jose elizaren aurrean dagoen Eleizalde txikerrari (hulezko mahai-zapiak, zerrautsa sarreran...). Orain dela 18 urte zabaldu zuten eta sasoi bateko Basauri tabernaren lekua hartu zuen. Hiru lagunek dihardute bertan beharrean: Aitor eta Koldo Landea anaiak eta Txema Loroño koinatua (sukaldean beharrean ibiltzen dena). Ez da hau Erromon daukaten taberna bakarra; izan ere, Eleizaldetik oso gertu dauden Landea eta Arenas (futbol talde horren egoitza soziala) tabernen jabe ere badira: "Bata dastalekua da; bestea, ostera, erabateko taberna, jatekorik ez duelako ematen", azaldu digu Aitor fruitzarrak.

Eguneko menua eskaintzen dute

Eleizalden 7,50 euroren truke. "Etxean jaten dena prestatzen dugu: entsaladak, garbantzuak, makarroiak, gibela, oilasko izterra, xerra...". Enkarguzko afariak ere egiten dituzte (barikuetan eta zapatuetan bakarrik). Jantokian 24 lagunentzako lekua daukate, eta inguruko beharginetz beteta egoten da bazkaltzeko orduetan. "Behar-jantzi zikinagaz datoz asko", dio Aitorrek, "baina gero ardao-zaleak datozkigu, taberna txikiteroen errondan dago-eta". Asteko zazpi egunetan egoten da zabalik, goizeko 9etatik gaueko 10etara bitartean. ^m

ELEIZALDE TABERNA
Kresaltxu 13, Erromo
T. 94 602 14 33

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik-ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta askotarikoak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Azken aldian ematen dituzun aholkuak okerrak dira denak, ia fundamentuzko baten bat noiz plazaratzen duzun. Bestalde, sasoi onean egoteko zama ondo jagon beharko duzu, buruko min handia eman diezazuke-eta hemendik aurrera.</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Beti behar eta behar, ikasi eta ikasi. Patxadaz egoteko denbora topatu behar duzu. Ilea lar luze badaukazu ebakitzeko momentu aproposa izan daiteke hau, edota "look"-a aldatzea ere ez litzateke ideia txarra.</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Oraindik ez duzu egin pasadan urtearen gaineko gogoetarik. Hain txarra izan al zen? Aurrera indarrez egiteko atzera bueltarik ez daukana ulertu behar da lehenengo. Har ezazu arratsalde lasai bat eta zoaz paseoa.</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Buruan daukazun txori andana akatzeko egun osoa beharko luke chiztari batek. Amets gehiegi egiten duzu eta ekintza gutxi, proiektu asko dituzu baina horiek gauzatzeko ez duzu ezer ere egiten. Ekin lanari!</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) A ze piura! Zelan ausartu zara kalera horrela irretzen! Jendeak dioena berdindizula diozu, baina... Amak ere ez zaitu ezagutu kalean ikusi zaituenean. Hobe zenuke haren gomendioak jarraitzea, "amak beti arrazo!".</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Aspaldi ez zenuela halako gaupasarik egiten, eduki duzun ajea izan da horren lekuko. Hala ere, hurrengoan errepikatuko duzula zin egin diozu zeure buruari. Hala bedi! Ondo datorkizu beharreko burukominak ahaztea.</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Gauzak sarriago ahazten dituzula aitortu duzu orain dela gutxi. Ez dira ba irribelarren ondorioak izango, ezta? Mendira paseotxo bat egitea ondo letorkizuke, haize freskoa eta garbia behar dute zure birrikiek!</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Besteen baratzetan ez duzula sartu gura diozu, baina sarritan ortu horiek zuk jorratu beharrekoak dira. Ondo dago bakoitzak aukeratzea non borrokatu, alabaina besteek zure partez borrokatu behar izatea ere!</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Bikoteagaz denbora larregi pasatzen duzu, eta lagunak alde batera utzi dituzu. Eurak ere ohartu dira hortaz, baina zu antza ez. Zergatik ez duzu lagunak batera bazkari edota txangoren bat prestatzen?</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Kosta egiten zaizu maitekiro agertzea. Alabaina, zuk ez baduzu laztanik ematen hartu gura izatea ez da zilegi. Izan zaitetz goxoagoa, eta orduan ezagutuko duzu besteek eman dezaketen hain taktu goxoa.</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Maltzur samar portatu zara beragaz. Ona izan gura duzunean onena zara, baina deabrua baino txarragoa ere izan zaitzkeela ere erakutsi duzu. Kontuz ibili! Deabruagaz hartuemanetan dabilenak atzekaldea ondo zaindu behar du-eta.</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Hadi ibili zaitetz egunotan, zeozer ostuko dizutelako edota galtzeko arriskua duzu-eta. Batzuetan lar ona zara eta askok tontotzat hartzen zaituzte, baina badakizu lagun onek ez dutela inoz ere horrelakorik pentsatuko.</p>

mungia
OKINdegia



Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



KEKO

denborapasa


LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Balakatuak, ferekatuak. 2. Larruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

1. Langile klasea. 2. Martxan jarriak. 3. Zirt edo ..., erabaki! Ikusmenaren organoa. 4. Asia Txikiko antzinateko hiria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo. 6. Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa. 7. Bos-tehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzo. Amerikako estatua. Iodoa.



Soluzioak



asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Lezaman behar egiten du.
- Hamaikakorik egokiena osatzea da bere zeregina.
- Zaleak pozik dabilta beragaz.

> Aurrekoaren erantzuna: Ruper Ordorika

> Irabazlea: **Enekoiz Perea**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Zuri Haitz
Jatetxe vegetarianoa



Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



ARGAZKIA, JOSEBA ANGULO

Bittor Egurrola

Bizkerre futbol taldea, 1985

Algortako Bizkerra futbol taldea orain dela 25 urte sortu zen. Aurten beraz, zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte. Izena Bizkerre baserritik dator kio taldeari. Alberto Diez Saiz-ek idatzi zuen *Berango, 40.000 años de historia* liburuan irakurri dugunez, Berangoko baserri hau 1482ko agiritan azaltzen da, beraz 500 urtetik gora ditu. Gaur egun txalet itxura dauka eta Lipperheidetarrena da. Santa Ana alboan dago, Iturgitxi erretegiaren eta iturriaren aurrean.

Guraso talde batek bai mutilekin, bai neskekin lan egiteko sortu zuen 1980an Bizkerre futbol taldea. Nesken taldea aurrera eroan zutenen artean halabeharrez aipatu behar ditugu Luis Mari Soravilla eta Maribel Ardanza senar-emazteak. Luis Mari gainera bizpahiru urtez nesken taldeko lehen entrenatzailea ere izan zen. Gaur egun ere lanari tinko eusten dio, klubeko taldeburua da-eta. Hori meritua!

Argazkian 1985/86 denboraldiko nesken lehen taldea daukazue, Zornotzako futbol zelaian. Emaizta zehatza ez dakigu, baina irabazi zutela, bai. Hor daude, esaterako, gero Althleticeko jokalariek izateagatik oso ospetsuak egin diren Nerea Onaindia eta Lexuri Angulo. Beste izen bat ere aipatu nahi genuke: Jesus Lopez *Petxa*. Gaur eguneko zuzendaritzako kidea da *Petxa*, eta Bizkaiko federazioan ere badabil beharrean eta han emakumezkoen futbolaz arduratzen da.

Zorionak beraz, Bizkerre taldeari eta, bide batez, eskerrik asko hau posible egin duzuen guzti-guztioi! m

Zutunik: Olaia Arce, Nerea Onaindia, Elena Quevedo, Miren Dobarán, Ainhoa Rodríguez, Begoña Biurrun.
Makurturik: Clara Zalbidea, Goiuri Zenikazelaia, Lexuri Angulo, Tere Alba, Olga Iriondo, Isa Perez.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

CARLOS SOBERA > aktorea eta aurkezlea

“Bizio aitorrezinak dauzkat”

Testua: **Jon Urresti**



Defini ezazu zeure burua berba bitan. Oso trufaria.

Zein animaliaz zatoz bat? Txakurragaz.

Eta zein pertsonaia antzetzuko zenuke film batean?

Aktore legez lan ona egiteko aukera ematen didan edozein.

Historiako zein pertsona miresten duzu gehien?

Asko, asko. Historia pertsonaia miresgarritz josita dago.

Zure jakirik gogokoena.

Oso gustuko ditut porruak ozpin-oliotan; hala ere, denetarik jaten dut.

Aitortu dezakezun bizioren bat. Bizio aitorrezinak dauzkat (barreak).

Oporretara joateko lekurik aproposena.

Hego Amerikako edozein herrialde.

Zein hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Traizioa.

Zer janzen duzu lo egiteko? Ahalik eta gutxien.

Ezin zaitezke bizi... Maitasun barik.

Zer gordetzen duzu sakeletan?

Ezer berezirik ez: eguneroko paperak, aparkalekuetako txartelak, ontziratzeko txartelak... Gainera, gauero husten ditut poltsikoak.

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.

Behar dudana baino ez dut erosten; kontsumitzaile txikia naiz.

Zein berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Bakea munduan.

Sineskeriaren bat. Ez naiz batere superstiziosoa.

Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?

Airelinea komertzialeko hegazkin pilotuan.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?

Esna nagoenean, bidaiatzea; lo nagoenean, berriz, ez zait ametsik errepikatzen... amesgaiztorik ere ez dauzkat.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz? Aitaren heriotzean.

Zure azken erokeria. Egitear nago (barreak). m

LABURREAN— Bere bizitzako frustraziorik handienetako bat pianoa jotzen ez jakitea da. Athleticeko jarraitzaile aitortua dugu. Bilboko sortzaile Don Diego López de Haroren papera egin zuen hiriaren 700. mendeurrenean, izerditan blai. Carlos Sobera (Barakaldo, 1960) bilbotar peto-petoa da, baina ez ei da bere baitan ixten. Txikerra zela hasi zen bekaina altzatzen: "Espainian oraindik ere horretaz galdetzen didate; Euskal Herrian, berriz, ez". 1987tik 1997ra EHUko irakaslea izan zen, Publizitate Zuzenbidea irakasgaietan hain zuzen ere: "Irakaskuntza nire antzerki eskolarik onena izan zen. Egutero 200 ikasleren aurrean egoteak publikorik zorrotzera jostatzerara derrigortzen zaitu. Gustukoa ez bazara, ez dira biharamuean itzuliko". Publizitatea egin du (orain dela gutxi Euskal Okelaren dohainak gorapaitu dizkigu), baina aitite bihurtuta lan hauek erakutsiko lizkioke ilobari: *Palabras encadenadas* antzezlan, *Hasta aquí hemos llegado* filma, eta *50 x 15* eta *Date el bote* lehiaketak. Azken horregaz audientzia ederra ematen dio eguerdiko ETBri. Baina Carlos Soberak erronka berriak eskatzen ditu beti; azkenengoa (edo azkenurrekoa) Antena 3-en aurkezten duen *Números locos* saioa dauka, horrek aireportuetan "bizitzen" derrigortzen dion arren.



IV. **ABRA** saria euskal herriko bertsolari gazteak

Bertsolariak:

Andere Arriolabengoa (Aramaio)

Joanes Igeregi (Sopela)

Oihana Bartra (Bilbo)

Agin Rezola (Astigarraga)

Eneritz Zabaleta (Baiona)

Jon Elizetxe (Baztan)

Gaijartzailea:

Josu Esnaola

Andres Isasi Musika Eskolan [Areeta - Getxo]

Otsailaren 26an larunbata 19:00etan

Sarrera dohainik

